

DATORRENA

Europar demokraziaz

GORKA ELEJABARRIETA > 3

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

2018ko martxoa, 2011ko maiatza

RAMON SOLA > 11

2018ko martxoaren 24a | XII. urtea • 562. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



EHUN EGUN BAKARDADE HAUTATUAN > 22

Juan Carlos RUIZ IFOKU

**Transhumanismoa,
teknoebanjelio berria** 04

**Palestinako adin txikikoen
atxiloketa sistematikoak** 08

**Komunikazio ez bortitza,
Arberoako ikastolako
dinamikaren ardatza** 12

**Musika automatikoki sortzeko eta
sailkatzeko metodo bana** 17

E.lkarrizketa: Jose Diaz 22

**Sugar Kultur Fest, Gasteizko
Judimendi sormen auzo
bihurtzeko «txinparta»** 26

In Fraganti: Clara Peya 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Europar demokraziaz
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Jadwiga
- 11 **Ramon Sola:** 2018ko martxoa, 2011ko maiatza
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 19 **Joxean Agirre:** Lotsatiak
- 20 **Gorka Zozaia:** Gizateria 2050 (III): Energia burujabetza edo nekropolitika
- 21 **Iker Barandiaran:** Bide bazterrean
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:** %0,25! Helduak gazte!
- 30 **Garazi Goia:** Ur lasterraren aurka



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Europar demokraziaz

Europako mapa behin eta berriro aldatu da azken hamarkada eta mendeetan. Egungo Europar estatu diren askok independentzia XX. mendean eskuratu zuten, ez lehenago. Eta gutxi batzuek, XXI. mendean. Are gehiago, horietako askoren independentzia sendotzeko bidean Europar Batasunaren laguntza faktore garrantzitsua izan da iraganean, eta, etorkizun hurbilean Europar Batasunako kide berriak nortzuk izan daitezkeen ikusten badugu, ohartuko gara rol berdina jokatuiko duela datozen urteetan ere.

Hori guztia horrela izanda, nola ulertu Europar Batasunaren jarrera bere mugen baitan ematen diren antzeko prozesuen aurrean? Europar Batasunak bere historia hurbilari eta izaerari muzin egiten dio behin eta berriro, badirudi ez duela ezer ikasi azken urte eta hamarkadetan eta datozen aldaketa eta joera politikoen aurrean nahiago duela ostrukarena egin. Duela gutxi arte europar instituzioen baitan tabua zen Europar Batasunaren barne hazkundearen inguruan hitz egitea bera; tabua den bezala estatu kide batek egiten dituen giza eskubideen urraketak aipatze hutsa. Finean, Europar Batasuna estatuen kluba da eta Europar Batasunaren interes eta helburuen gainera estatuenak jartzen dira behin eta berriro.

Batasuna euskal alderdi politikoa legez kanporatu zutenean, Europako Parlamentuak gaiari buruz eztabaidatzea debekatu zuen, nahiz eta hainbat europar diputatu eztabaida Europako Parlamentuko agendan sartzea eskatu. Handik gutxira, Turkiak HADEP alderdi kurdu politikoa ilegalizatu eta Parlamentuan gaia sakon landu zen, talde politiko guztietako bozeramaileek ilegalizazio hori gogor salatu zuten eta Turkiak bere barne politika aldatu ezean Europar Batasuneko kide ezingo zela bilakatu esatera iritsi ziren. Europar Batasunak oso jarrera diferentea erakutsi du beti bere mugen barnean edo kanpoan gertatu diren antzeko gertakarien aurrean. Eta ez dirudi jarrera bikoitz hori etorkizun hurbilean aldatuiko denik.

Horrela bakarrik uler daiteke azken urteetan Flandria, Eskozia edo Kataluniako prozesuekiko erakutsi duen jarrera. Kasu guztietan Europar Batasunaren interesen gainera estatu kideen interesak defendatu ditu. Are gehiago, horrelako kasuen aurrean Europar Batasunak bitartekari lanak egin zitzaizkeen, konponbidea herritarren borondatearen nahia errespetuz bilatzeko presiona zezakeen, eta, nola ez, Eskoziako bezalako erreferendum adostuen aurrean, inolako alderen alde egin gabe jarrera neutroa mantentzeko zezakeen. Baina orain arte Europar Batasunak ez du horrelakorik egin eta ez du egingo aurrerantz ere.

Europar Batasunaren mapa zeharkatuz marra horizontal bat marraztuko bagenu, frantziar Estatuan eta bere hegoaldera estaturik gabeko herriekiko dagoen jarrera eta bere iparraldera dagoen jarrera oso ezberdinak direla konturatuko ginageteke. Eskoziak erreferendum adostu bat burutu zuen, udazkenean Faroe uharteek egingo duten moduan. Katalunian, Korsikan, Sardinian

Gatazkak ez dira sortzen mugak aldatu edo mantentzen direlako, auzokideak direnen arteko prozesuak kudeatzeko moduaren arabera baizik

edo Euskal Herrian oso zaila –ezinezkoa ez esatearren– ikusten dut nik erreferendum adostu bat inoiz gauzatzea. Europar Batasunean bi abiadura daude, baita demokraziaren mailari dagokionez ere. Europar Batasuna ez da oraindik konturatu gero eta jarrera demokratikoa izan, gero eta egonkortasun eta egoera hobea egongo dela Batasunaren baitan. Ezegonkortasuna, gatazka eta krisia ez baitira mugen nondik norakoan arabera. Gatazkak ez dira sortzen mugak aldatu edo mantentzen direlako, auzokideak direnen arteko prozesuak kudeatzeko moduaren arabera baizik. Kudeaketa gero eta demokratikoa izan, auzokideen eta Europar Batasunaren barne kohesioa gero eta handiagoa izango da. •

TRANSHUMANISMOA, TEKNOEBANJELIO BERRIA

Teknologiarekin postgizakia sortu: izaki jainkotar ahalguztidun eta nonahikoa

📁 **FILOSOFIA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Gizateria erradikalki aldatuko omen duen filosofia globalizatzen ari da.

Bere eslogan propioa ere badu: "Gizakiak eta makinak bat eginda, aurrerakuntza teknologikoaren bidez, gizakien natura erradikalki aldatzera goaz!". Transhumanistek bere biologia eta ezagutzatik harago eraman nahi dute gizakia, superinteligentzia, ongizate emozionala eskuratuko dituen eboluzioaren fase berri bateraino.

Zer da, baina, filosofia hori? Zer demontre da transhumanismoa? Mugimendu zientifikoa da, baina baita sistema filosofiko bat ere. Gure izateak dituen ahulezia piloen artean, teknologia medio, denetan ahuleziarik handiena gainditu nahi omen du: heriotza. Gizakiaren mugak pasatzeko daudela defendatzen du, gizateriaren eboluzioaren fase berri batera pasatuko bagara. Nahi bada, beste hitz batzuetan esanda, azkarragoa, indartsuagoa eta inteligenteagoa izango den espezie berri bat sortzea da helburua, nolabaiteko giza arraza berri bat, "postgizakia" deituko duguna.

Gure izate edo kondizioak muga biologiko eta intelektuallak ditueneguz, egon diren jeinetan jenialenen ahalmen intelektuala gainditu behar da, eskubide osoz, anbizio guztiarekin. Tximinoena gainditu genuen bezala. Zahartzaroari eta gaixotasunari erresistente izango omen gara. Mugarik gabeko gaztetasuna eta kementa izango ditugu. Nork bere desira, umore eta egoera mentalaren gaineko kontrola izango du. Gauza txikiekin haseurretuta, gorrotoak atrapatuta

Gizateria erradikalki aldatuko omen duen filosofia globalizatzen ari da kultura popularrean, zineman, ekonomian. Teknologia medio, bere biologia eta ezagutzaren mugetatik harago eraman nahi du gizakia, superinteligentzia eta ongizate perfektua eskuratuko dituen espeziearen eboluzioaren fase berri bateraino.

eta nekatuta egotearen sentipenak betiko ekidingo ditugu. Plazera, maitasuna, lasaitasuna izateko ahalmen handiagoa izango dugu. Gizakien burmuinak egun ez dituen kontzientzia egoera berriak biziko

ditugu. Denborak eragindako hondatzea, gaixotasuna, mina eta heriotza gainditu ahalko dira.

Laburtuz, kontua honakoa litzateke: teknologia erabiliz espezieen arteko trantsizio be-

Besteak beste, nork bere desira, umore eta egoera mentalaren gaineko kontrolaren promesaren eskutik dator transhumanismoa. GAUR8

rri bat azkartzea, eboluzioa gizakitik postgizakira eramatea. Trantsizio horren zubiari deituko diogu transhumanismoa.

OINARRI IDEOLOGIKOAK

Oinarri ideologikoak dituen mugimendua da transhumanismoa, ez pentsa. Erabiltzen dituen suposizioek oinarri filosofikoa dute. Esate baterako, antropologikoki begiratuta, hondatzea kondematutako biomakina konplexuak garelandio, fisikoki eta intelektualki gure propietate fisiologiko eta genetikoek mugaturikoak. Izate hori, baina, kimikoki manipulatu eta ingeniarietza genetikoaren bidez zuzendu omen daiteke, muga horiek pasatu eta hondatzeari izkin egin omen dakioke. Finean, espezie bezala ez dugula ezaugarri sa-



kraturik, ez dugula arimarik, ezta asmo espezialik ere, istripu soil bat garela defendatzen du transhumanismoak. Eta bide horretan, ez garela beste izaki bizidunekiko ezberdinak, ez dugula berezko baliorik. Gure balio bakarra superbentziarako desira propioa izatea dela, hori dugula “berezko eskubide” bakarra, ahalik eta denbora gehienez bizirauteko “eskubidea”.

Transhumanismoak indarra estimatzen du. Indar fisikoa ahuldade fisikoa baino gehiago baloratzen du, eta indar mentala ahulezia mentala baino gehiago. Indar hori eraiki eta ahalduntzeko tresna teknologia da.

Kosmologia mailan, unibertsoa inork gidatu ez duen prozesu natural baten ondorioa dela uste du. Unibertsoaren eta bizitzaren jatorrietan inongo izaki metafisikoren eraginik izan denik guztiz ukatzen du. Benetan axola duena hemen, orain, denbora eta espazio zehatz honetan gaudela dela dio transhumanismoak, eta etorkizun hobeago bat erditzeko oraina manipulatzeko saiatu behar dugula, iraganak ezer gutxi laguntzen duelako helburu horri begira.

Epistemologiatik begiratuta, zera dio: gure burmuina oso makina konplexua da eta haren bitartez jakintza pilatu, prozesatu eta horren arabera ekiten dugu. Jakintza guztia barneratzea posible dela defendatzen du, eta, horrela, gizaki hobeagoa sor daitekeela. Ez daudela buru edo arima metafisikorik, kontzientzia jakin bat transplantatu daitekeela, edo nortasun bat. Azken buruan, kilo eta erdi baino gutxiago pisatzen duten gure ehun neuronalen fruitu direla gure maitasun, amets eta pa-

«Kilo eta erdi baino gutxiago pisatzen duten gure ehun neuronalen fruitu dira gure maitasun, amets eta pasioak, eta transplantatu, gorputz batetik bestera transplantatu daitezke»

«Giza espezieak aipagarri izaten jarraitu nahi badu, ezinbestean, inteligentzia artifizialarekin sinbiotikoki bat egin beharko du. Gure geroa ziborga izango da edo ez da izango»



Transhumanismoa mugimendu zientifikoa eta sistema filosofikoa da. GAUR8

sioak, eta transplantatu, gorputz batetik bestera, transplantatu daitezkeela.

Har dezagun transhumanismoaren teologia. Jainko metafisiko transzendental oro arbuiatu egiten du. Aldiz, jainkotasun materialista bat lor daitekeela defendatzen du. Hau da, teknologiaren bidez, postgizakia “izaki dibino” bilaka daiteke, ahalguztidun, orojakin eta nonahiko. Hitz lauagoetan adierazita, teknologiari esker, teknologiak gaituta, gizakia jainko bihurtzeko. Hilezkor, ahalguztidun, orojakin eta nonahiko. Jainkorik gabeko giza izate berri baterako, gizakia egin behar da jainko, hots, jainkoa ukatu behar du jainko bihurtzeko.

DESIRAGARRIA BAINO, BEHARREZKOA

Honek guztiak abstraktua, futurista eta funtsik gabea dirudien arren, kultura popularrean, zineman edo ekonomian errotzen ari den fenomeno da. Zientzialari ero batzuen kontua dela iruditzen arren, azken mendeetako pentsalari eraginkorren hausnarketa gai eta ondorio izan dela esan daiteke. Esate baterako, hor ditugu Charles Darwinen “Especien jatorria” edo Friedrich Nietscheren “Honela mintzozen Zaratrusta”-ko *Übermensch* edo “supergizakia”. Arrastoak aise topa daitezke.


Gizakiek eboluzioaren prozesua baldintza dezaketela ez da inongo sekretua bizi dugun antropozenoaren aro geologikoan. Proposa ditzagun hausnarketan aurrera egiteko galdarak: zergatik ez da posible izango egungo ahalmenak baino askoz ere handiagoak dituen gizaki berri bat sortzea? Gaixotasun, haserre eta tristurarik gabeko espezie bat sortu ahal daiteke? Eta, azken buruan, hilezkortasun digitala hain modakoa egin den honetan, heriotza berari aurre hartzerik ba al dago?

Transhumanistek etorkizun hori ez dela desiragarria bakarrik, behar-beharrezkoa dela diote. Asko mediatikoak dira oso, ospea ez zaie falta, ekin-tzaileak dira, guruen parekoak. Hor da, adibidez, Elon Musk hegoafrikarra, Tesla Motors eta Space X konpainien buru aski sonatua. Muskek esana da: giza espezieak aipagarri izaten jarraitu nahi badu, ezinbestean, inteligentzia artifizialarekin sinbiotikoki bat egin beharko du. Alegia, gure etorkizuna ziborga izango dela edo ez dela izango.

MUNDU FALTSU BATEKO ERREALTATEA

Gizateriaren irudi aldaketa erradikal baten aldeko alde, aro digital baten erdian dator. Zientzia eta teknologiaren aurrerapenek gure muga asko, baita biologikoak eta fisikoak ere, desafiatzen dituzte.

Teknologiaren hedapen azkarrek gizarte egiturak errotik aldatu ditu. Informazioz lepo dago bitzita modernoa, mundu guztia ordenagailu baten edo telefono mugikor baten aurrean dago. Gizartea abstraktuagoa bilakatu den heinean, birtuala bihurtzeko bidean da, munduko gertakizunetatik deslotutako fabrikatutako irudiekin.



Trumpen aroan, Errusia gora Errusia behera, *fake news* edo “berri faltsuak” delakoen inguruko zalapartak faltsifikaturiko errealitatea islatzen du. Simulazio erraldoi batean bizi gara. Herriaren boterea puska askotan zatitu da. Hauteskunde bidez gauzak aldatuko diren ustea *fake* hutsa da, esperantza faltsua. Agertokiaren atzetik txotxongi- loen hariak mugitzen dituztenak profesionalak dira herritarren artean gatazkak pizten, beldurrean eta gorrotoan kateatuta, errealitatearen zentzua eta ikusmira gal dezaten. Komunean duguna bilatu eta arazoak konpontzeko batu baino, jende asko autosuntsiketa segurua dakarten dinamiketan murgiltzen ari da.

Haruki Murakami idazle japoniarra honela mintzatu zen: «Mundu faltsu batean bizi gara, telebistan berri faltsuak ikusten ditugu, gerra faltsuak borrokatzen ditugu, gure gobernu faltsua da». Baina, aldiz, errealitatea aurkitzen dugu mundu faltsu horretan. Gure istorioak bertsuak dira: eszena faltsuen artean gabiltza, baina, eszena horietan zehar ibiltzean, errea-

lak gara. Bitartean, korporazio teknologiko erraldoiek, inteligentzia artifizialaren monopolioa eskuratu nahi dute, bere garapena kontrolatu, horrela, etorkizunaren norabidean agindu ahal izateko.

Transhumanismoaren agenden atzean korporazio multinazionalen eskua ikus daiteke. Korporazioen botereak zibilizazioa naturaren aurka jarri du jada. Begira bestela Mosanto bezalako nekazaritzako korporazio bioteknologikoak: bizitzari oldartu zaizkio haziak monopolizatuz eta elikagaiak genetikoki aldatuta pozoituz.

Bestalde, teknologien inguruko elite hiperaberats horrek, roboten ekonomia aldarrikatzen

Teknologia erabiliz espezieen arteko trantsizioa azkartzea, eboluzioa gizakitik postgizakira eramatea du xede transhumanismoak. GAUR8

«Big data» eta inteligentzia artifiziala konbinatuz, hilezkortasun digitalaren ideia martxan da dagoeneko. Sarean bizitza propioa izango luketen gure buruaren klonak eginez

Borondate libreak eta ikaste prozesuak egiten gaitu ezberdin, hutseginkor. Gure akatsei zintzotasunez aurre eginez, umiliazio zentzua umiltasun bilaka dezakegu

du, automatizazioak lana ordezkatzeko duela aurreratuz.

Gizateriaren bestelako bertsio bat forma hartzen ari da. Gizakiaren ondorengo aro baten promesa entzuten da. Gure sufrikarioak arinduko omen ditue- na, indartsuago egingo gaitue- na, inteligenteago, Jainkoaren modukoago. Are, *big data* eta inteligentzia artifizialeko software bat konbinatuz, gizateriak hilezkortasun digitala eskuratu- ko duen ideia martxan da dago- eneko. Sarean bizitza propioa izango luketen gure buruaren klonak egiten saiatzen hasiak dira. Memoria digitala gure bu- ruetan kargatuko litzateke, den- boraren pertzepzioa geldotuko duten pilula berriak merkatura- tuko omen dira, memoria min- garriak ezaba ditzaketen droga berriak. Dena, aukera guztiak daude mahaiaren gainean, transhumanismoaren agenda- ren menuan.

BORONDATE LIBREA DA GAKOA

Utopia teknologikoa, baina, ez da doakoa. Ustez zerurakoa den txartela eskuratzeak prezio bat dauka, eta handia gainera. Giza- kiaren mugak pasatzeko, gure oinarriko izatea alboratzea es- katzen baitu.

Munduarekin harremanetan jartzen gaituen subjektibota- suna dohain bat dugu. Geure buruekiko kontzientziak, gure ekintzen norabidea erabaki- tzeke askatasuna ematen digu. Makinek programatuta dute- na egiten dute bakarrik. Guk, ordea, gure ekintzak erabaki eta sormenaren bidez egoera alda dezakegu. Askatasun hor- ri bat-batekotasuna eta alda- kortasuna libre dario, aurretik sumatu eta finkatu ezin den ingurunea eraikiz. Erabakitze- ko askatasun horrek, zorionez, akatsak egitera garamatza eta hutseginkor egiten gaitu.

Inteligentzia artifizialak eta interbentzio teknologikoak erabakitzeke askatasuna eta gure aukerak hartzeko ahal- mena mehatxatzen dituzte. Automatizazioak estutu eta deuseztatu egiten du gizakiek beren erabaki propioak har- tzeke duten espazioa. Doita- sun zientifiko eta matemati- koaren bidez, akatsak egiteko aukerak baztertu nahi horre- kin, gizakiena, gure-gurea, den zerbait kendu nahi digute me- kanizazioaren aldeko inda- rrek: borondate librea.

AKATSEN JABE EGIN

Borondate libreak eta ikaste prozesuak egiten gaitu izaki artifizialekiko hain ezberdin. Munduarekin dugun konexio- ak gure erabakiek dakarten ondorioekin lotzen gaitu. Aka- tsak egiten ditugunean, gure aurrean lehertzen da errealita- tea eta sortu ditugun ondorio- ak aurrez aurre ikustera be- hartuta gaude. Lotsa eta erru sentimenduek larritu egiten gaituzte, eta, gure bihotza, la- bankada garden batekin beza- la, erdi-erdiatik moztu dezake- te. Min jasanezin horrek gure sentsibilitatea esnatzen du. Sentsazio kiskaltzaile horie- kin, guk geuk egindakoak zu- zenean nabaritzen ditugu, bai- ta besteen bizitzetan dituzten ondorioak ere.

Gure akatsei zintzotasunez aurre eginez, umiliazio zen- tzua umiltasun bilaka dezake- gu. Umilak izaten ikasten du- gu. Beste gizaki batzuekin konektatzen gaitu horrek, errealitatea besteen ikuspun- tutik begiratzea ahalbidetzen digu. Enpatia horrek okerrak zuzentzen ahalegintzeko au- kera ematen digu. Kontzien- tziaren oinarria da gizakiak beren akatsen jabe egitea, ba- tak bestearen okerrak zuzen-

tzera eta ikastera inspiratzen gaituena.

Ilustrazio teknologikoaren pentsalari transhumanistek diotenez, korporazioen makinariak askatuko du gizateria. Zientzia fikziozko etorkizun baten forma duen zepo berri bat jartzen digute. Gidaririk gabeko autoetatik androideetara, robotak gizakiak bezalako itxura izateko eta erabakiak hartzeko diseinatuta izango omen dira.

Inteligentzia artifiziala hemen da jada, eguneroko ogi dugu, gure bizitza ederragoa, errazagoa eta seguruagoa egingo duen promesarekin etorria. Perfekzioa ardatz duen makinaren eta teknologiaren us-tezko nagusitasuna aldarrikatzen duten ebanjelio berriok, kontzientzia garatzeko ezinbestekoa dugun gure borondate librea ezaba dezakete.

Odol beroa eraman ezin dezaketen nerbio artifizialekin, robotek bizitza koptatuko omen dute beren existentzia sintetikoan. Egiazki bizitzeko aukerarik ez duten arren, hilezkortasun digitala aldarrikatzen duten mamuak dira.

ESNA IBILI, EZ SONANBULU

Sentitzeko dugun ahalmena gure izatearen lekuko ezinbesteko da. Horrek ahalbidetzen digu mundu faltsu batean pertsona errealak izatea. Gure minak soportatzeko egiten ditugun esfortzuek errukia sortzen dute. Gu geu eta besteak barkatzeko gai gara. Gure arteko akats eta inperfekzioetan aurkitzen dugun egiazkotasunean elkar maitatzeko indarra topatzen dugu. Gure akatsen onarpenak lotzen gaitu zurrunkeriaren eta mekanizazioaren aurrean borrokatzen duen botere sortzaile sendo horrekin, munduarekin

dugun harremanaren bidez mundua bizirik atxikiz.

Bidegurutzean dago gizateria. Teknologiaren aurrerapen esponentzialarekin, munduan erabateko iraultza bizkortzeko zein mundua suntsitzeko ahalmena handiagotu ditugu. Aitorpena egin behar da: ingurune fisiko gogor batean erosoago bizitzen, hondamendiei eta gaixotasunei aurre hartzen asko lagundu dute ingeniari-tzak, medikuntzak, kimikak, eta gainontzeko diziplina zientifikoek. Energia berriztagarriek ere etorkizun jasangarri bat erditzen lagun dezakete. Dudarik gabe, gizakia eta mundua hobetzeko erabil daitezkeen tresnak dira. Pobrezia gutxitu eta gure bizi kalitatea hobe dezakete, bai, baina gure kontra ere erabil daitezke.


Perfekzioa, makinaren eta teknologiaren nagusitasuna aldarrikatzen duten ebanjelio berriok, kontzientzia garatzeko ezinbestekoa dugun borondate librea ezaba dezakete

Errealitatea mingarria izan daiteke, baina errealitatearen zentzua galtzen badugu dena galduko dugu, gure bihotzen muinean sentitzen dugun guztiari amore emango diogu

Trashumanismoa gure gizartearen alor askotan mar-txan da, bere oinatzak nonahi ikus daitezke. Android eta iPad-ak, hitz egiten duten tresna edo tramankuluak sehasketan sartzen ari dira jada, umezaroko imajinazioa bahituz. Gau eta egun, teknologiak gazteen atentzioa lapurtzen du. Makinen mundua bizkortzen doan neurrian, gure bizitzak azkarrago eta azkarrago doaz, ziztu bizian bizi gara geure gorputzetan presente egotea oraindik eta zailago eginez.

Errealitatea mingarria izan daiteke, baina errealitatearen zentzua galtzen badugu gure bihotzen muinean sentitzen dugun guztiari amore emango diogu. Gure heriotza izango litzateke. Erabakiak hartzeko askatasunak, gure aukerak sortzeko ahalmenak sortzen du eta sortuko du etorkizuna. Askatasun hori aldarrikatu egin behar da, beti eta beteki. Horretarako oso esna egon behar dugu, ezin dugu teknologiak liluratuta, sonanbulu gisa ibili trantsizio aro honetan.

Gure etorkizuna ziborga izango dela edo ez dela izango bada kontua, horrela planteatzen bada dilema, bada ez da izango, ez dugu etorkizunik edukiko. GAUR8



GAU ILUNEAN ATXILOTUAK

Adin txikiko palestinarren atxiloketa sistematikoa salatu du B´Tselem elkarteak

PALESTINA / Ainara Lertxundi

Adin txikiko baten atxiloketa erabiltzen den azken bitartekoa izan beharko litzateke, baina, Palestinan, okupazioaren baitan, alderantzizkoa gertatzen da. Ume eta gaztetxoek atxiloketak sistematikoak bihurtu dira. Ahed Tamimiren auziak gaia mahai gainean ipini du nazioartean, baina icebergaren punta besterik ez da.

Urtero, soldadu israeldarrekin ehunka adin txikiko palestinar atxilotzen dituzte, atxiloketa bera azken baliabidea izan beharko litzatekeenean. Prozedura errepikatatu ohi da, ia sistematikoa izanik. Gauerdian, kalean edo etxean, lotan daudenean, atxilotu ohi dituzte. Eskuburdirak jarrita eta begiak estalita, jeep militarrean igotzen dituzte. Galdeketarako bidean, maiz tratatu txarrak eta mehatxuak pairatzen dituzte eta iristerako, nekatuta, gosetuta, egarri eta izututa daude. Ibilbidea, gainera, luzea izan ohi da.

2018ko otsailaren 28an, 356 adin txikiko palestinar zeuden atxilotuta, Israelgo Kartzela Zerbitzuaren arabera. Israelgo B´Tselem gobernuz kanpoko erakundeak pairatzen dituzten eskubide urraketak bildu ditu aurkeztu berri duen ikerketa batean.

«Israelek aldaketa legalak egin dituen arren, ez ditu atxilotuen eskubideak errespetatzen, nahiz eta adin txikikoak izan. 2009. urtean Gazteentzako Auzitegi Militarra sortu zuen, prozedura judizialen epea murriztu zuen eta gurasoek presentzia gehiago izatea baimendu zuen. Baina, prakti-

kan, neurri horiek guztiek aurpegia zuritzeko besterik ez dute balio izan. Propaganda hutsa dira, jendeak okupazioaz duen ikusmoldea hobetzeko. Atxiloketa erabiltzen den azken neurria izan beharko litzateke, ez lehenengoa», nabarmendu du Yael Steinek, «Adin txikikoak arriskuan» izeneko txostenaren zuzendariak.

2014an eta 2015ean, Fiskaltza militarrek 1.046 salaketa jarri zituen adin txikiko palestinarren kontra. Horietatik 30 (%3) 12 edo 13 urteko umeak ziren; 261 (%25), 14 edo 15 urtekoak; eta 755 (72%), 16 edo 17 urtekoak. Atxiloketen %40 gau ilunean eta etxean zeudela gertatu ziren, eta, gehienei, eskuburdirak berehala jarri zizkieten.

Atxilotuen %80ri begiak estali zizkieten soldaduek. Gurasoengandik aldentuta, isilpean eta bakartuta, militarrek ez dizkiete beraien eskubideak azaltzen. %90ek ezin izan zuten abokatuarekin hitz egin galdeketaren aurretik eta galdeketak iraun bitartean, ez zuten jatekorik edo edatekorik jaso, ezta komunera joateko baimenik ere.

Atxilotuen %70ek galdeketan biolentzia fisikoa pairatu izana salatu zuten eta %65ek mehatxuak eta irainak. Kasu gehienetan, beraien kontrako



froga bortxaz lortutako aitortzak edo egoera berean dauden beste atxilotu batzuek egindako aitortpenak dira. Zigorruak izango diren jakitun, beraien erruduntasuna edo hirugarren batena aitortu ohi dute Fiskaltzarekin kartzela zigorren eta ordaindu beharreko isunaren gainean akordio batera iritsi ostean. Gazteentzako Auzitegi Militarra akordio horiek berrestera mugatzen da.

Ahed Tamimiren auziak Zisjordanian okupazioaren ondorioz adin txikikoek pairatzen dituzten eskubide urraketak sistematikoak azalarazteko balio izan du, baina, icebergaren punta besterik ez dela nabarmendu du Steinek. «Urtero, horrelako ehunka egoera ditugu, zoritxarrez», esan du.

17 urteko Tamimiren abokatuak fiskal militarrekin zortzi hilabeteko zigorra adostu

«Gazteentzako Auzitegi Militarra abokatuak fiskalarekin zigorra hain gogorra izan ez dadin lortutako akordioa berrestera mugatzen da. Ez dago benetako defentsa egiteko aukerarik»

«Atxilotetaren lehen fasea oso gogorra da adin txikikoentzat. Guraso eta abokaturik gabe izaten dituzte, bakartuta, beldurtuta, okupazioa ordezkatzan duten helduz inguratuta»

Goian, Ahed Tamimi eta gainontzeko preso palestinarren askatasuna aldarrikatzeko martxoaren 8an Parisen egindako manifestazioa. Alboko orrialdean, Tamimi bera pasadun otsailaren 13an auzitegi militarrean eraman zutenean, Ofer izeneko espetxean.

Thomas COEX
Christophe ARCHAMBAULT | AFP



du, bere kontrako kargu batzuk onartzearen truke. Gaby Lasky abokatuak fiskalarekin akordioa lortzea lehenetsi du, zigor eskaera hiru urtekoa baitzen. Tamimi soldatu bati zaplazteko bat emateagatik atxilotu zuten, 16 urte zituela. Abendutik dago preso. Auzitegi militarrek akordioa onartzen badu, datorren uztailean aske geratuko da.

ESPETXETIK ESPETXERA

Muhammad Fuqahak 16 urte zituen a-Labad herrian atxilotu zutenean, Tulkarm barrutian, 2017ko uztailearen 21ean. Egun horretan, Al Aqsa meskitara sartzeko Israelgo Gobernuak ipini zituen segurtasun neurri elektronikoak salatzekeo protestak deituta zeuden. Harresitik 300 metrotara zegoen jeep militar bat azaldu zenean. «Jende guztia korrika atera zen. Urdu jarri nintzen eta ez nintzen gai izan hortik alde egiteko. Lau soldaduk harrapatu

eta lurrera bota ninduten, eta kolpeka hasi zitzaizkidan. Eskuak bizkarraldean lotu zizkidaten, arroparen batekin begiak estali zizkidaten eta jeepean sartu ninduten. Tulkarmeko kontrol gunera eraman ninduten. Bertan, hiruzpalau orduz egon nintzen, beste gazte batzuekin. Ondoren, polizia-etxera eraman gintuzten, Arielen. Gela batean sartu eta lurrean esertzeko agindu ziguten. Banan-banan galdeketara atera gintuzten. Ni lehenengoa izan nintzen», gogora ekarri du Fuqahak.

«Bi pertsona zeuden gelan. Esaten nuen guztia auzitegian nire kontra erabil zezaketela esan zidaten eta isilik gelditzeko eskubidea nuela. Abokatu bati deitu zioten eta harekin telefonoz hitz egiteko aukera izan nuen. Galderak lasaitasunez erantzuteko esan zidan. Anaia zaharrenari deitu zion ni atxilotuta nengoela esateko. Harriak bota izana leporatu zidaten. Nik akusazio hori ukatu egin nuen.

Galdeketak ordubete iraun zuen. Tarteka garrasi egiten zidaten. Hurrengo egunean epaitegira eraman ninduten Salemen, atxiloteta denbora luzatzeko. Gurasoak zeuden bertan. Ni eta beste gaztetxo batzuk Meggidoko espetxera eraman gintuzten. Egun osoko bidaia izan zen, leku guztietan gelditu baitzuten furgoneta. Iristerako, leher eginda nengoan», azaldu du.

Kartzelatik Arielera eraman zuten berriro beste galdeketa baterako. Bederatzi orduko beste bidaia bat, espetxez espetxe joan ziren-eta. Galdeketak ordu eta erdi iraun zuen. Ondoren, Hasharoneko espetxera eraman zuten. Gaua han pasa ostean, Meggidora bueltan eraman zuten. Beste zazpi ordu. Hurrengo goizean, Salemera berriz ere, auzitegi militarra, atxiloteta lau egunez gehiago luzatzeko. Gutxienez zortzi aldiz eraman zuten espetxetik gorte militarra.

2017ko urriaren 3an, sei hilabeteko kartzela zigorra eta 280

dolarreko isuna ezarri zioten soldaduen kontra harriak jaurtitzegatik. «Nik ez nuen aitor-tzarik egin, baina abokatuak esan zidan soldaduen lekukotasunak zeudela eta zorzea nuela, zigorra handiagoa izan zitekeela. Abokatu fiskalarekin akordio batera iritsi zen». Abenduaren 31n kaleratu zuten. Ikasturte erdia galdu zuen Fuqaha gazteak.


«GUZTIZ JASANGAITZA»

Maysoun al-Kaeid 56 urteko ama palestinarra da. Bere seme gazteena, Malek, 16 urterekin atxilotu zuten, gauez, etxean lotan zegoela, harriak jaurti izana egotzita, Fuqaharen kasuan bezala. Mutikoaren kontra zeuden frogak bakarrik soldadu baten lekukotasuna eta beste atxilotu baten aitor-tza, behin Malek soldadu bat harri batekin zauritu zuela zioena. «Lekukotasun horiekin bost urteko kartzela zigorra jarri ziezaioketela esan zigun abokatuak eta ez zuela merezi epaiketara iristea. Hobeto zela fiskalarekin akordio batera heltzea: bi urteko kartzela zigorra eta 280 dolarreko isuna. Nire senarrak baiezkota eman zion abokatuari eta hurrengo egunean dirua eman zion. Semea espetxean egon zen bitartean ez nintzen gai izan bere gustuko janaria prestatzeko. Ezin nuen arrautzarik jan, Maleki izugarri gustatzen zitzaizkion-eta. Nire semea da, beti izugarri arduratu da nitaz, osasunez gaizki nagoelako. Guztiz jasangaitza egin zitzaidan semea kartzelan ikustea. Askatu zutenean, zoriontasuna etxera itzuli zen. Bere gustuko janaria prestatu eta senide eta lagun guzti-guztiak gonbidatu nituen etxera». Al-Kaeideren lekukotasuna da, B´Tselem elkarteak jasotakoa.



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Jadwiga



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

Hitz egin dizuet nire lagun Valentinaz. Bartzelonan ezagutu genuen elkar eta han jarraitzen du berak ordutik, lasai antzean, «procés»-a den errusiar mendiari jaramon handiegirik egin gabe. Ulerkor-edo, manifestazioak etxetik entzuten ditu –urriaren 3koa izan zen salbuespena–, baina gaiak eragiten dion interes nagusia antropologikoa da. Zerikusirik ez Martxoaren 8arekin, kalean pasa baitzuen eguna orduan.

Bion artean tarteka errepikatzen den hizketagaia da feminismoarena; bera eroso, ni ez horrenbeste, etengabe birkoitzen ari naizen sentsazioz. Maiz ematen diot arrazoia, batzuetan ziurtasun handirik gabeko paternalismo damugarriz bada ere. Beste batzuetan ziurtasun are gutxiagoz egiten diot aurka, edo ez dut ezer esaten, autozentsurak eta bataila galduko dudala jakiteak bat egiten dutenean. Edonola ere, Valentina ez da dardoak aurrezten dituen horietakoa. Lehengoan: «Konturatzen zara aipatzen dizkidazun arkitekto ia guztiak gizonetzkoak direla, salbu eta askorik gustatzen ez zaizun Zaha Hadid?». Zer esan ebidentziak biluzten zaituenean?

Gaitz erdi, hala ere, hori bakarrik balitz. Gertatu izan baitzait eraikin bat ikusi, gustatu, eta automatikoki arkitektoa-

ri gizon aurpegia jartzea, ondoren konturatzekeo emakumea zela eraikina diseinatu zuena. Aurreko batean jada aipatu nuen bidaia hartan gertatu zen, Poloniako Wrocław hirian, bi eraikin interesgarrirekin. Lehen galeria bidezko sarrera zuten etxebizitzek osatutako blokea zen; etxebizitzak duplexak ziren, eta horrek bi bider interesgarri egiten zuen eraikina, tipologikoki eta fatxadaren konposizio aldetik. Bigarrena dorre multzo bat zen, bertakoek “Manhattan” izenez bataiatua –ez dala umorerik falta–; espresibitate handiko eraikin dotoreak ziren elementu aurrefabrikatuz eginak izan arren.

Kontua da nik gizon aurpegia jarri niela instintiboki bi eraikinen arkitektoei eta bat ez, bi akats egin nituen tiro batez: ez ziren bi arkitekto, bakarra baizik, eta emakumea gainera: Jadwiga Grabowska-Hawrylak.

Bigarren Mundu Gerra osteko Wrocławko lehen arkitektoa izan zen Grabowska (“Hawryak”, imajinatu duzuen moduan, ezkondu ostean gehitu zitzaion senarraren abizena da). Estatuak bultzatu zuen errealismo sozialistaren aroa amaitu ondorengo fase modernoaren ordezkaria da, eta eragin metabolista eta brutalista nabaria da bere obran. Wrocław badu eraikin mordoxka bat.

Opari zirikatzailea egin diot Valentinari. Jadwiga Grabowska-Hawrylak arkitektoaren sarrera txiki bat idatzi dut Wikipedian, omenaldi xumearen eta erredentzio-ariketa patetikoaren arteko zerbait. Euskaraz. Ekintza sinpatikoa irudituko zaio, hizkuntza minorizatuak eta estaturik gabeko nazioak “sinpatikoak” iruditzen zaizkion modu paternalista berean, baina barren-barrenean ez du guztiz ulertuko. Pentsatuko du idatz nezakeela ingelesez edo gaztelaniaz, berak italieraz idazten duen modu berean, normalago, jende gehiagorengana iristeko. Pentsatu eta esaten ez diren gauzak, Valentinak ere ongi ezagutzen duelako autozentsurak eta bataila galduko duela jakiteak bat egiten duten toki hori. •

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

2018ko martxoa, 2011ko maiatza

Duela hamar-hogei urte eskas, Martxoaren 8ko jende uholdea eta gaur dela astebeteko manifestazio itzelak bata bestearen atzean eta horrelako indarrarekin kateatu izan balira, Euskal Herria borborka zegoela sentituko genuelakoan nago, ezkerretik zetorren haizea nekez geldituko zutela eta iraultza –edo iraultzea gutxien-gutxienik– gertu zela. Gauzak, baina, askoz ulergaitzagoak dira garai nahasiotan. Izan ere, bi mobilizazio itzel horietan, duela hamar-hogei urte gerta ezin zitezkeen gauzak ikusi ditugu. M8an, Iñigo Urkullu greba aldarrikatzen, Mariano Rajoy izandako arrakastarekin pozik, Albert Rivera lazo morea bularrean, matxismoaren gotorleku den “Marca” feminismoaren egun handiari orrialde batzuk eskaintzen... Eta M17ari erreparatzen badiogu, hipokrisia bera, nahasmen berdina: hainbat tokitan agertu dira zenbait erretiratu manifestazioetan ikurrinak sartzearen aurka, Iruñean PPren anaia bikia den UPNk ordezkari bat bidali zuen...

Biralitateak dena kutsatzen duen garaiotan, horrelako uholdeei benetako neurria hartzeko, perspektiba izatea ezinbestekoa da lehenik eta behin. Eta gero, aztertu beharra dago gerta-

era birtualak ote diren, nolabait errealitatez kanpoko hodei lanbrotsura igoak eta bertara mugatuak, edota lurrera jaitsi eta errealitatea aldaraz dezaket. Moda kontua da ala fenomeno politiko eraginkorra? Gainera, anabasaren erdian horrelako mobilizazioak ondorio politikoak askatzeko gauza badira ere, zalantzakoa da aldaketa nahi hori guztia, bidegabekeria sentipen handi hori, askoren amorru bizi hori zein indar politikok kapitalizatuko duen. Ameriketako Estatu Batuetan Donald Trump aupatu duen mugimendua edota Erresuma Batuan Brexita ahalbidetu duena ez dira bereziki goiko botereguneetatik etorri, jende xumearen eskutik baizik. Guztiz kontraesankorra izan arren, ez da guztiz baztertu behar Estatu mailan Ciudadanos bezalako *sta-*

tu quo-aren aldeko indar batek bere onerako baliatzea gertatzen ari dena edozer gauza berrik egungo gizartearen duen erakargarritasunari esker. *Kleenex* efektu horrek Podemos izan du adibide azken urteotan. Aldaketarako nahiari gauzaren praktikoa ematea egiteko dagoen lana baita hemen eta han, nonahi: sumindurak eztanda ugari eragin ditu, bai, baina, kasurik gehiengotan, berez agortzen joan dira, itzali ere egin arte.

2011ko maiatzaren 15eko Puerta del Sol plazako kanpaldia, 15M famatua, dugu horren adierazpen garbiena. 2018ko M8an zein M17an izpiritu horren berpiztea ikusten dute askok, bigarren danbada bat, Estatuaren tripetatik datorren orroa. Lehen orro horren ahalmena, baina, nahi baino askoz txikiagoa zela frogatu zen laster. Euskal Herrian, gainera, oihartzuna oso murrizta izan zen; aldaketa gogoia agerikoagoa izan zen aste-bete geroago Bilduk hauteskundeetan eman zuen kol-

Aldaketa nahiari gauzaren praktikoa ematea egiteko dagoen lana da, hemen eta han, nonahi. Sumindurak eztanda ugari eragin ditu, bai, baina berez itzali dira sarri

pean, edota 2014ko ekainaren 8an Gure Esku Dagok egindako giza kate erraldoian. Denbora pasa ahala, ordea, azken bi gertaerok neurri batean zertxobait birtualak ere ez ote ziren galde daiteke, beren indarra handitzen joan ez den neurrian eta iraultze politikoa marraztu baina guztiz gauzatu ez den aldetik.

Bidegurutze bertsuan egon gaitezke gaur, orduko galdera beraren aurrean. Non dago aldarrikapen horiei segida emateko bidea, eraginkor egiteko modua? Moncloako agintaria (baino ez) aldatzean ala euskal burujabetza bultzatzean? Erantzuna garbi dagoela uste dut, baina horretarako nonbait elkartu eta batu beharko dira M8ak, M17ak eta gorpuzten ari den ekainaren 10eko giza katea, esaterako. •

BIHOTZ HANDIA DUEN IKASTOLA

Arberoan komunikazio ez bortitzak egituratzen du ikastolaren dinamika osoa

📁 JENDARTEA / Idoia ERASO

Duela hamar urte Donamartirin ikastola sortu zutenetik Marshall Rosenbergek sortutako komunikazio ez bortitza dute oinarri. Teknikak garatzen joan dira, bereziki ikasle kopuruaren handitzeari aurre egiteko, bostetik 70 izatera pasa baitira denbora horretan. Bihotz handia eta enpatiaren hizkuntza ardatz dituen Lepe jirafa dute gidari.


Komunikazio ez bortitza tresna soil bat baino gehiago da, gizarte baketsu eta zorionsu bat eraikitzeko bidea izaten ahal da», azaldu du Maialen Etxart Nafarroa Behereko Arberoa eskualdeko ikastolako zuzendariak. Hori lortzeko bidea horrela definitu du: «Gure bizitzak esku artean hartuz eta autokontziente izanez, gure-

Seaskako ikastolen federazioaren baitan dago Donamartirikoa. Bertan 3 eta 11 urte arteko haurrak hartzen dituzte, inguruko herrietatik heldutakoak. Bob EDME

tzat eta besteentzat ona dena xerkatuz. Zer balio du gu zorionsu izateak ondokoa ez baldin bada? Denak osotasun beraren barne gara».

Ongizatea da helburua, eta komunikazio ez bortitza da gildatzen dituen tresna. Pedagogiari dagokionez, hainbat iturritatik edaten dute, eta esperimentatzen joaten dira. Hiruzpalau asteko proiektuak egiten dituzte, ikasgai guztiak gai baten inguruan antolatuz. Gaiak, irakasleez gain, ikasle eta gurasoek ere proposa ditzakete.

Komunikazio ez bortitza zer den galdetuta, «norberak bere burua ezagutzeko tresna eta filosofia» bat dela erran du zuzendariak. «Ikasten baduzu zure burua ezagutzen, hobeki ulertzen badituzu zure mugak eta jarrerak, hobeki komunikatzen ahalko dituzu, eta ho-



beki ulertuko dituzu bestearenak». Hala, ikastolaren eremuan «ongizate nahia denentzat» dela azpimarratu du, horren baitan ikasleekin batera, irakasle, laguntzaile eta gurusoak sartuz.

LEPE JIRAFÁ

Marshall Rosenberg estatubatuarra 1960ko hamarkadaren hastapenean sortu zuen komunikazio prozesua oinarri dute ikastolan. Rosenbergekin hainbat animalia hartu zituen kontzeptu eta komunikazio eren metafora gisa. Jirafa da pertsonaia erreferentea, lurrean bizi diren animalien artean bihotz handiena duelako, eta lepoa luzea daukanez gertaerakiko distantzia har dezakeelako. Ikastolan pertsonaia horri Lepe izena jarri diote, eta ikastolako artekaria da, norbaitek tartekaritza lan hori

Lepe jirafak «zorionsua izaten eta munduan diren kalapitak konpontzen laguntzen du».
Astero bi haurri Lepe izatearen ardura ematen zaie, eta artekaritza lana egiten dute

Gatazkak konpontzeko lau urrats daude: gertatu dena «objektiboki» argitu, sentitzen dena erran, hori sentitzeko eskas den beharra zein den atzeman eta beharra asetzeko eskaera egin

egiten duenean ere, une horretako Lepe erraten diote. Astero Lepe izatearen ardura haur batek edo bik hartzen dute, eta, arazo bat badelarik, haurrak berarengana joaten ahal dira; xedea beste haurrei mintzatzeko aukera ematea da.

Leperen hizkuntza hitz egiteak «zorionsu izaten laguntzen» duela baieztatu dute haurrek, baita «munduan diren kalapitak konpontzen la-

guntzen» duela ere. Horren aurrean otsoen hizkuntza dago; «haserrea oinarri hartuta, kalapitak, irainak, bortizkeria...» sortzen dituen da, hau da, komunikazio ez enpatikoa. Bestalde, dortoka ere ageri da, bidea barneratzeko zaila dela aditzera eman baina poliki eta urratsez urrats lor daitekeela ulertaraziz. Eta olagarroak erakusten du eremu ezberdinetan partekatuak garela.

«Sentimendu bakoitza oparibat da, bizirik gaudela adierazten du, beharrezkoak dira bizitzeko. Atseginak direnean behar bat edo gehiago bete direla esan nahi du, eta, ezatseginak direnean, behar bat edo gehiago ez direla bete», azaldu du Exte Oihenart ikastolako irakasleak. Baieztapen hori baliabideak plantan ezartzeko oinarritzko filosofia da. Eta zehaztu du: «Tresna baino lehenago ja-

rre aldaketa izan da niretzat, eta erabiltzen ditugun baliabideen artean artekaritza da horietako bat».

BALIABIDEAK

Gatazkak konpontzeko tresnen artean, garrantzi handia dauka biltzar borobilak. Edonork deitzen ahal du, eskaera egin eta arazoa konpontzeko nortzuk izatea nahiko luken eskatzen du, «errazleak». Hiru pertsona edo ikastola osoa izan daitezke biltzarrean.

Konponbiderako bidean lau urrats daude, lehenik eta behin, gertatu dena «objektiboki» argitzea, kanpotik kameara batekin ikusi izan balitz bezala kontatuz. «Arraformulaztea da xedea, batek erran eta besteak errepikatu bere hitzkin. Entzuna izate hutsarekin batzuetan berehala lasaitasuna lortzen da, eta konponbidea ez da urrun orduan», azaldu du irakasleak. Bigarren urratsa sentitzen dena zer den erratea da, eta, hirugarrena, sentimendu hori izateko eskas dugun behar hori zein den atzematzea. Laugarrena da behar edo nahi hori asetzeko eskaera egitea norberak bere buruari edo besteei.

«Hasieratik deliberatu genuen zigorrik ez ezartzea, ez baita ez gaizki ez ongi. Komunikazio ez bortitzaren arabera, gertakari bat izan da, bada, zu eta ni nola sentitu garen ikusi eta horrekin zer egin dezakegun ikusten da. Horrelakoetan zigorrik ez du zentzurik, elkarrekin nola konpondu baizik», argitu du Etxartek.

Bestalde, Sentimenduen Xokoa ere bada, ikastolako kide guztientzat baliagarria izan daitekeena. Gela bakoitzean bada bat, eta modu librean erabil daiteke sentimenduak adierazi ahal izateko. Bertan





«LEPE ARBEROAN» FILMA, IKASTOLARI BURUZ

“Lepe Arberoan, komunikazio ez bortitza bizitzen” dokumentala egin zuen iaz Itziar Bastarrika Madinabeitiak. 2016ko udaberrian ikastolan egun batzuk iragan zituen grabaketa taldeak, eta hortik ateratako irudiekin filma egin zuten. Irakasleen eta haurren testigantzak agertzen dira bertan, baita haurren azalpenak ere. Eguneroko ikastolako bizitzan komunikazio ez bortitzari lotuta emandako egoerak ere erakusten dituzte. Lepe jirafa eta bere lagunak ere marrazki bizidunetan agertzen dira komunikazio prozesuaren oinarriak emanez, ikasleen hitzekin lagunduta.

Behin proiektua gauzatuta, ikus-entzunezkoaren promoziorik egiten ari ez badira ere, Ipar Euskal Herriko ikastoletan ezagutzera ematen ari da. Hala, filmaren proiektioarekin batera hainbat aurkezpen egitera gonbidatu dituzte irakasleak. «Gure aldetik ez dugu lanik egiten zabaltzeko, ez da gure xedea, eta ez dakigu egiten ere, baina, jendeak deitzen gaituelarik, joaten gara», azaldu du Exte Oihenart irakasleak.

sentimenduen ortzadarra eta beharren zuhaitza daude, haurrek momentuan sentitzen dutena errazago agerrarazteko. Gainera, bertara hurbilduta haurren artean «kooperazioa naturalki» sortzen dela nabarmendu dute irakasleek. Hana ere, kezka adierazteko ontzia, hitzak sekretuan gordetzen dituen.

Astean behin eskertze uneak egiten dituzte, bertan, norberak bere buruari, beste norbaiti edo elementu abstraktu bati ere agertu diezaioke esker ona, biziari esaterako. «Ongizatea eman diguten ekintza konkrituak aipa daitezke, asetako beharra eta horrek eragin digun sentimendu atsegina zehazten dira. Denentzat momentu oso atsegina izaten da», azaldu du Oihenartek.

Egiteko moldeoi esker, zentzu kritikoa garatzen da haurrengan. Horregatik, «ez dute

obeditzen zentzurik ez badiote hartzen». Hori autoritateari lotuta dago, izan ere, denak maila berean jartzen dira, nahiz eta bakoitzak bere ardurak izan. «Nortasun handiko haurrak dira, eta enpatia landua dute. Batzuetan zaila da, baina argi dugu zertarako nahi dugun gaitasun kritiko hori izatea, beraien beharrak adierazteko gai izan daitezen», nabarmendu du irakasleak.

Egungo lanak etorkizunean izan dezakeen emaitzez ere hitz egin du Oihenartek: «Enpatia txikitandik barneratuta, heldutasunean izango dituzten harremanetan lagunduko duela espero dut, gauzak ezberdinki ikusten eta bizitzen».

JATORRIA

Irakaskuntza zentroan ibilmolde honek egindako bidea aurretik bertako irakaslea izandako Etxartek esplikatu

Nafarroa Behereko Arberoa eskualdeko hezkuntza zentroak interesa piztu du inguruko ikastolen artean bere ibilmolde ezberdina dela-eta.
Bob EDME

du: «Sortu genuelarik ikastola duela hamar urte, hainbat guraso bildu ziren eta nik hartu nuen lehen irakasle postua. Garaian nire lehen haurra sartu zen ikastolan, orotara, bost ziren. Komunikazio ez bortitza hautatzearen arrazoia nire ibilbidean atzeman daiteke. Ni interesatzen nintzen eredu horretaz bizi pertsonalarentzat, beraz, hastapenetik hor zen. Gero, emeki formatzen joan nintzen eta ikastolaren oinarri bilakatu da».

Izandako garapena ikusirik, zuzendaria gehien pozten duena ikastolatik kanpoko hedapena da: «Gurasoek ere ikasten dute, eta, ondorioz, haien haurrekilako harremana ere ezberdina da». Urteetako esperientziaren ondoren, egiteko molde honek izan ditzakeen mugei buruz, bakoitzak dituen «muga pertsonalak» direla nabarmendu du.



IKUSMIRA

BADAKITE, BAINA EZ DUTE ULERTZEN

Goian, Baiona: zerbitzu publikoen aldeko manifestazioa. Behean, Bilbo: pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. Aste honetako lagin bi besterik ez dira, eta badira azken egunotan beste protesta asko eragin dituzten motibo gehiago ere: diru sarrerak bermatzeko errenta, hezkuntzaren kalitatea, osasungintza... Mobilizazio jendetsuak ikusten ari gara, eta instituzioetako arduradunek aurpegi ulerkorra erakusten dute, baina pentsatzen dute jendeak ez duela ulertzen: «Hauek us-

Isabelle MIQUELESTORENA - Aritz LOIOLA | FOKU

te dute daukagun dirua denetarako iristen dela, eta ez dakite zein zaila den dirua banatzea...». Eurek badakite, baina eurak dira ulertzen ez dutenak. Adituak dira, hori ez dut nik ukatuko, baina ez dute ondo egiten. «Dirua eskatu besterik ez dute egiten». Noren dirua, baina? Estatueta gobernuetako kideena? Lehendakariena? Ahaldu nagusia? Alkateena? Ez, ez dute eskatzen, eman baik. Eta modu solidarioan eman duten edo ematen ari diren diru hori, beren dirua, modu solidarioan banatzeko eskatzen dute. Xabier Izaga Gonzalez



LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia BALLESTEROS

MUSIKA ETA TEKNOLOGIA

Musika automatikoki sortzeko eta sailkatzeko metodo bana

Abesti bat sortzen denean ez dira bakarrik notak bata bestearen atzean jartzen. Sorkuntzak baditu hamaika zirrikitu. Hartara, sorkuntza prozesuan ematen direnak aurkitu nahian abiatu zuen bere ikerketa Izaro Goienetxeak. Eta bere abiapuntua bertsoen melodiez osatutako bilduma edo corpusa izan zen, Joanito Dorronsorok jositako bertso-doinutegi oparoa hain justu. Hori oinarri, musika automatikoki sortzeko eta musika automatikoki sailkatzeko metodo bana garatu du EHUko ikertzaileak. «Sorkuntza automatikoko proiektu europar batean hasi

 **INFORMATIKA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Sorkuntza prozesuaren atzean zer dagoen deskubritu nahian abiatu zuen Izaro Goienetxea EHUko ikertzaileak bidea. Abiapuntu hartu zuen, gainera, Joanito Dorronsorok jositako bertso-doinutegi oparoa. Musika automatikoki sortzeko eta sailkatzeko metodo bana jarri du mahaiaren gainean Lezoko ikertzaileak.

Lerroom azpian Izaro Goienetxea, EHUko ikertzailea. Bere bi pasio, musika eta teknologia, lotu ditu egin duen ikerketan. Juan Carlos RUIZ | FOKU

zen dena. Musika sorkuntza-
ren eta sormen automatikoa-
ren inguruko proiektu batean
hain zuzen. Justu proiektu ho-
rrekin hasi ginenean irratian
entzun nuen Joanito Dorron-
sorok bildutako bertso-doinu-

tegiaren berri. Horrelako cor-
pusak eta doinutegiak lortzea
oso zaila da, batzen dituztenek
normalean beretzat gordetzen
dituztelako. Hartara, aukera
paregabea zen gure ikerketara-
ko. Xenpelar Dokumentazio
Zentroarekin harremanetan
jarri nintzen, sarean eskura ja-
rrita daukaten materiala ikus-
ten aritu nintzen eta oso-oso
corpus aproposa iruditu zi-
tzaidan guk egin nahi genuen
ikerketa abiatzeko», agertu du
Goienetxeak.

Sormen automatikoa aipatu
du ikertzaileak. «Hori da, hain
justu, proiektuaren asmoa;
sormenaren atzean zer dagoen
ulertzen saiatzea. Prozesu hori
simulatzen saiatzen gara, sorm-
en hori nola ematen den



Goienetxeak hiru urte daramatza bere tesiarekin buru-belarri.
Juan Carlos RUIZ | FOKU


ulertzen saiatzen gara. Esaterako, abesti bat egiten duzunean, zer sortu behar duzu? Ez dituzu bakarrik notak jarri behar bata bestearen segidan... zer gehiago egiten da? Hori deskubritu nahian abiatu nintzen bertso-doinutegitik».

EHUko Robotika eta Sistema Autonomoen ikerketa-taldearen baitan aritu da Goienetxea ikerketa jardunean. Hasieran musika automatikoki sortzeko pista bila abiatu bazen ere, bidean topatutako emaitzek musika automatikoki sailkatzeko moduak ikertzera eraman dute. Azkenean, ikerketaren emaitzek bi metodo jarri dituzte mahai gainean: bat musika automatikoki sortzeko, eta, bestea, musika automatikoki sailkatzeko. "Plos One" zientzia-aldizkari sonatuak eman du ikerketaren berri.

MUSIKA ETA TEKNOLOGIA

Musika eta teknologia batu ditu Goienetxeak bere ikerketan. «Harreman hori naturala da. Badaude alor horretan aritzen diren taldeak eta badaude, era berean, matematika eta musika erlazionatuta nola dauden ikertzen dabiltzanak. Badakigu harreman bat badagoela eta alor horretan lan dezente egin dira. Musika automatikoki sortzeko ere joko mordoa egon da, informatika baino askoz lehenagokoak. Horregatik uste dut harreman nahiko naturala dela musikaren eta teknologiaren artekoa». Ikertzailearentzat ere bide oso naturala da musika eta teknologia lotzen dituen. «Asko maite dut musika eta informatikaria naiz. Niretzat ikerketa hau sekulako mauka izan da».

Ikerketak, gainera, emaitza interesgarriak eman ditu.



«Guk analisi bat egiten dugu eta hipotesi batetik abiatzen gara: musika sortzeko garaian melodia horrek egitura bat izan behar du. Errepikapenak eta erlazionatuta dauden segmentuen egitura bat egon behar dira. Eta bertso melodiak errepikapenez beteta daude. Beraz, alde horretatik bertso-doinutegia oso aproposa zen gure hipotesi hori frogatzeko. Guretzat melodia mota oso egokia zen ikerketarako».

Eta hipotesia norabide zuzenean zihoala frogatu du ikerketak. «Bertso melodiak eta folklorea, oro har, errepikapenez josita daude. Badago teoria bat esaten duena guk musika ulertzeko errepikapena behar dugula. Alegia, abesti bat entzuten ari garenean beharrezkoa dugula lehendik entzundako zatiak edo antzekoak berriro entzutea diskurtsoa bere osotasunean ulertu ahal izateko».

Musika automatikoki sortzeko metodoa eredu gramatikal edo estatistikoetan oinarrituta garatu da. «Kontuan hartu behar harko litzateke melodien koherentzia, erraz ulertzeko moduko melodiak sortu ahal izateko. Ziur egon behar genuke melodia berrien barnean zenbait segmentu errepikatu egiten direla, bai nota mailan bai beste melodia maila abstraktuago batzuetan ere», nabarmendu du ikertzaileak.

Musika automatikoki sortzeko metodoak bide ugari zabal ditzakeela uste du, gainera. «Aplikazio desberdinak izan ditzake metodo horrek. Adibidez, musika tresna birtualak sortzen lagundu dezake. Musikoterapian, adibidez, tresna mordo bat erabiltzen da, baina jende guztiak ezin ditu tresna horiek erabili, bai zailak direlako bai pertsona batzuek mu-

ga fisikoak edo psikikoak dituztelako, adibidez. Pertsona bakoitzaren beharretara egokitzeko moduko musika tresna birtualak sortzeko aukera ematen dute musika automatikoki sortzeko metodoek. Bideo-jokoetarako ere oso baliagarriak izan daitezke. Bideo-jokoak egiten dituen jende asko dago, eta, behin eginda, bideo-jokek musika behar dute. Ez dago edonoren eskura konposatzaile batengana joatea eta musika bat enkargatzea. Hor ere aplikazioa izan dezake metodo horrek. Eta gehiago ere badaude».

Musika automatikoki sortzeko metodoak, beraz, erabilpen desberdinak eta interesgarriak

izango dituela uste du Goienezteak. «Baina ez du, inondik inora, sormena ordezkatu. Sormenaren atzean zer dagoen ulertzen saia gaitzke, baina makina batek ez du sekula sortzaile bat ordezkatu. Makina bat irits daiteke konpositore jakin batek dituen ezaugarriak ulertzera eta horiek imitatu ditzake. Baina imitazio bat izango da. Ez dut uste makina bat sorkuntzaren magia hori harrapatzea irits daitekeenik».

MUSIKA SAILKATZEKO METODOA

Musika sailkatzeko metodo bat ere garatu du ikertzaileak. «Gero eta musika gehiago daukagu Interneten eskura,

Musika automatikoki sortzeko metodoak aplikazio desberdinak izan ditzake. Musika tresna birtualak sortzen lagundu dezake, musikoterapian erabiltzeko adibidez

«Sormenaren atzean zer dagoen ulertzen saia gaitzke, baina makina batek ez du sekula sortzaile bat ordezkatu. Konpositore baten ezaugarriak ulertu eta horiek imitatu ditzake»

eta gai garrantzitsua bihurtzen ari da musikaren sailkapen automatikoak egiteko aukera izatea, musika-bilduma handiak antolatu ahal izateko», esan du Goienetxeak. «Adibidez, melodia bat entzun eta metodoak, analisi bat egin ondoren, zein konpositorere-

na den esan dezake». Hori da sailkapen automatikoaren ideia. Haren bidez, «melodia bat analizatzen dugu, eta zeren antzekoa den esaten dugu, alegia, zer generotan sailka dezakegun».

Orain, sorkuntza eta klasifikazioa hobetzen ari da Lezoko ikertzailea. «Nire tesiko zuzendariak esaten duen bezala, tesiak ez dira bukatzen, utzi egiten dira». Hiru urte daramatza buru-belarri lanean eta gustura dago emaitzarekin. «Inoiz ez da espero duzuna gertatzen, egunero aldatzen da bidea. Bartzuetan beste bartzuetan baino hobeto kudeatzen da frustrazioa, baina beti aurrera jarraitu beharra dago».

Lotsatiak

Joxean Agirre

Bilboko Kafe Antzokian Ruper Ordorikari egin zitzaion omenaldiaren barruan Atxagak eskaini zuen errezitaldiak komentario bat baino gehiago eragin zuen sarean. Bartzuek antologikotzat jo zuten eta hala izan zela uste dut nik ere. Norbaitek «han egon nintzen» idatzi zuen, unea historikoa izan zela nabarmentzeko-edo. Ez dakit. Edozein modutan ere ez dut inoiz ikusi jendea (eta aretoa beteta zegoen) poesia errezitaldi batekin horrela gozatzeko eta ez dut Atxaga bera ere horren okurrente eta tarteka horren ganberro inoiz ikusi.

Une batetik aurrera, ordea, txalo egiteari utzi eta hasi nintzen pentsatzen jainkoak ez direla inoiz zuzenak izan talentua banatzeko orduan, baina oraindik okerrago ibili direla jendetasuna eta gaitasun sozialak banatzerakoan. Mikrofo-

noan han egon behar zuena Ruper Ordorika bera baitzen, baina jaialdia hasi aurretik mundu guztiak zekien ez zela agertuko. Beharbada ni bezalaxe beste batzuk ere pentsatzen egongo ziren ederra izango zela agertu izan balitz. Mikrofonora gerturatu eta esaldi labur bat esatea aski zukeen edo esaldiaren ondoren, askotan egin ohi duen moduan, alde aurretik porrotera kondenatutako txiste bat egiten saiatu izan balitz. Ez genukeen Atxagarekin bezala barre algararik egingo, baina hunkituta geratuko ginen.

Egon nintzen pentsatzen gaitasunen banaketa horretan moztadea tokatu zaigunok, lotsatiok alegia, ez ote dugun sentiberatasun berezi bat edo zentzu ezkutu bat ezberdin eta berezi egiten gaituena, eta askotan moztadeak gure buruarekin haserretzera bagaramatza ere, ez ote genukeen zorioneko sentitu behar, maite

ditudan idazle handienak eta artista on asko lotsati petoak direlako. Geurera mugatuz, halakoa zela uste dut Koldo Mitxelena bera eta halakoak dira edo izan dira Ruper, Laboa eta Saizarbitoria, eta halakoa irudikatzen dut Sarrionandia ere.

Ni beti lotsation kofradiako zaindaria izan zitekeen René Laënnec sendagile bretoiarekin gogoratzen naiz. Bere bulegoan omen zegoen bihotzeko gaitzarekin zebilen neska bat bisitan etorri zitzaionean. Bihotzaren inguruan belarria jarri eta auskultatzeak lotsa ematen ziolako, koarderno bat kiribilduta ipini zion bularrean taupadak entzun ahal izateko. Belarriz baino hobeto entzuten zituela oharturik, hasi zen oraindik ere indarrean dagoen eta sendagile guztiek lepotik zintzilik dabilten fonendoskopioa perfektionatzen. Nik neuk bere lekuan pare bat metroko fonendoskopioa asmatuko nuen. •



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Gizateria 2050 (III): Energia burujabetza edo nekropolitika

arkitektura / zientzia / london calling

3 BEGIRADA:

Negua atzean utzi dugula gogorarazten digu gaur gaueko ordu aldaketak eta hain hontzak diruditen 2050. urtearen gaineko espekulazioak ere artikulu honekin amaituko dira. Populazioari eta bere elikadurari begiratu diot lehenik, elikadura burujabetza proposatuz gosea jakiak zakarretara botatzearekin bateragarri egiten duen barbaridadearen aurrean. Garunaren gaineko ezagutzan ematear diren jautziei begira, eta dagoeneko komunikazio paradigma berria eragiten ari diren jakitun, ziborgen eta *homo sapiens*-en arteko gudarekin espekulatzerare ere ausartu naiz. Attenboroughren hitzak nire eginda eboluzio kulturalaren beharra azpimarratu dut 2050 postkapitalista baterantz, eta gaurkoan Kardashoven eskalarekin lotu nahiko nuke balizko aurrerabide hori. Hiru zibilizazio mota deskribatzen ditu: 1 motakoe, planetako baliabideen kontrola dute, 2 motakoe, bere planeta sistema osoarena eta 3 motakoe, galaxia osoarena. Gu 0,72aren inguruan geundekere bere garaian Saganen arabera, baina zelakoa da ba Lurreko baliabideen gainean dugun benetako kontrola?

Gaur egun mundu mailan produzitzen den energiaren %85 inguru erregai fosilak errez lortzen da, energia nuklearrak eta iturri berriztagarriek %7na inguru dakarten bitartean. Logika, berriz, berdina da (ia) beti: kapitalista. Baliabideen kontrola gero eta esku gutxiagotan izateak guda eta giza miseria moderno guztiak ekarri ditu, baina gaurko ogia eta biharko gosea eskaintzen dituen eredu horrek, klima bera aldatzerainoko kakatzarra eragiteaz gain, Lurrean potentzialki ekoizten ahal den energia guztiaren hamar-

milaren bat besterik ez du sortzen. Hori gutxi balitz, ekoizten den energiaren laurdena baina gehiago energiaren sorrera eta garraioan galtzen da! Merkantzia eta pertsonen garraioak beste %20 suposatzen duelarik, mundializazio logika kapitalistak produzitzen den energiaren erdia gastatzen du soilik bere mantenuan. Beste erdia, zer esanik ez, logika kontsumista eroak xahutzen du hein handi batean. Guztiarekin, egungo eta etorkizuneko biztanleriaren heriotza, xahuketa eta miseria eragiten duen nekropolitikan oinarritzen den eredu energetikoa da indarrean dagoena. Aurrera begira, klima aldaketa eta mehatxu nuklearra –bai militarra bai “zibila”– besterik eskaintzen ez digun eredu ankerra.

Zendu berri den Hawkingek esaten zuen bezala, «arrisku handiko aroa bizi dugu, bizi garen planeta suntsitzeko moduko gaitasuna baitugu, baina ez oraindik bertatik alde egitekoa».

Agian horregatik eman zuen bere karrera amaiera bizitza adimentsu estralurtarraren bila, aurrerantz ihes egiteko. Yustek etika jotzen zuen aurrerapen zientifikoen erabilera okerra mugatzeko bide, baina hortxe dugu, parez pare, 2018ko gizateriaren zoru etikoa. Fusio nuklearrak paradigma energetikoa irauliko zuela uste zenean muga teknikoak ziren aitzakia, baina nork bultzatuko du ba itsasoa duen edonork energia garbi eta ia muga gabea izateko teknologia?

Bitartean, eskura dugunetik, Infernuko Errotaren bidea dugu, naturaren indarra boterearen bideetatik at kudeatzea. Ordua alda dezakegu gaur, baina txipa aldatu beharra dugu. 2050. urtea tropikala izango bada, izan dadin librea ere. •



Infernuko Errota, frankismo garaian klandestinoki lan egiten zuena. GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Bide bazterrean

Gogoan daukat aspaldi Polonia zeharkatzen egin nuen bidaia batean autobideko bide bazterretan sarritan jende asko ikusten nuela bide izkinatan autoei so; asko adineko pertsonak ziren eta baita emakumeak ere. Ez zuten ezer saltzeko bistan eta zutik zeuden guztiak, zerbaiten zain. Autobideko puntu batzuetan, erdi-erdian zebra bideak zeuden, baina semafororik ez. Haien helburua bidea gurutzatzea zen, baina, halabeharrez, itxaron beharra zuten. Halako baldintzetan ez zen erraza autobidea noiz gurutzatu erabakitzea. Erantzukizun handiz jokatu zergo, ez zuten inoiz pausoa emango, eta, ondorioz, ezin zuten helburua inoiz erdietsi. Hala, adore handia behar zuten pauso hori emateko, eta, batez ere, beharrezkoa zuten jomuga zein zuten oso argi izatea.

Gurera etorrira, semaforoz, biribilgunez, zebrabidez eta ustez zibismoz jositako gure herrietako kaleetan behin baino gehiagotan topo egin dut adineko hainbat pertsonarekin, zeintzuek nik autoa erabat gelditu arren, keinuz nik bidean aurrera egiteko eskatzen didaten. Horren ondorioz sortzen dena keinu elkarrizketa hutsala (edo ez) izan ohi da: ni adinekoari pasatzeko eskatuz, geldi nagoela gogoraraziz; eta berak ezetz, errepidea autorik gabe dagoenean gurutzatuko duela adieraziz. Erabat harrিতa uzten nau joera horrek.

Pazientzia oso estimuan daukadan bertutea da, eta presa eza gaur egun oso preziatua izan beharko genukeen altxortzat dut inongo zalantzarik gabe. Egia da seguruenik bi horietatik asko dutela gure artean kaleetako errepide bazterrean zain egoten diren adindun horiek, baina ni behintzat ernegatu egiten naiz pixka bat zebra bidea parean dutela beraiek nahi dutenean gurutzatzeko duten eskubidea gauzatu nahi izaten ez dutelako. Presadunak ei gara gu? Zer da presa? Hala bada, presadunok lehentasuna izan behar dugu? Zergatik? Zer da lehentasuna?

Gure gizartean pertsona nagusiak nola baztertzen ditugun sakon aztertzeke moduko kontua da eta hein handi batean erantzukizuna besteona bada ere, hasi dira behingoz pauso irmoak ematen. Eta egon ziur, haiek tematzen badira, ez ditugula, nahi izan arren, iritziz erraz aldaraziko.

Berez edo ustez pertsona adindun horiek pasa dituzte akzio nagusiko beraien urteak, garaiak. Orain lasai eta beraien gustura bizitzea tokatzen ei zaie. Eguneroko buruhausteetatik at egoten saiatzen direla esan ahal genezake. Eta antza arrazoi osoz esan ahal lezake orain beste batzuek borrokatzeke garaia dela.

Bada, azken hilabeteotan jendetza biltzen hasi da gure arteko hiriburu eta herrietako kaleetan. Beraiek (zentu guztietan esanda) irabazi zituzten pentsioak eta lorpenak galbidean doaz eta orain borrokatu beharko genukeenok ez dugu ezertxo egiten. Berriro ere beraiek irten behar izan dute kalera, irmo dagokiena

Bidea zeharkatu eta gauzak aldatu bitartean kale erdian eustea erabaki dute pentsionistek eta emakumeek. Orain arte errepidearen albo bietan gertatzen zenari so zeuden, baina jada ez dira zain geratuko

defendatzera eta eskubideak aldarrikatzera; inork ez die emango aurretik lortutakoa, eta horretaz ohartu dira.

Iraganean herritarren mesedetan aritu zirenak eta inoiz kalera irten ez zirenak batzea lortu dute; gero eta gehiago dira. Gauza antzekoa gertatu zen pasa den Martxoaren 8an. Bidea zeharkatu eta gauzak aldatu bitartean kale erdian eustea erabaki dute bai pentsionistek eta baita emakumeek ere. Errepidearen albo bietan gertatzen zenari so zeuden bai batzuk eta bai besteak, eta jada ez dira egungoari, etorriko denari, presazkoari eta urgentziazkoa edo lehentasunezkoa dela esaten dietenari arretaz begira zain geldituko. •

«Bakardadea jendetzaren artean oharkabean pasatzea da, ez konpainia eza»

Asturiasen badute altxor bat, bertatik mugitu ezin dena, lurrari josita dago, ezin da ostu, ezta maileguan hartu ere. Kasik ez dago Redes Parke Naturala Jose Diazek bezain ondo ezagutzen duenik. Begiak itxi ditzake eta ibiltzen jarri, badaki non dabilen. Bertako haize ufadak, animalien urratsak eta soinuak aski ezagunak zaizkio, zuhaitzak eta loreak, txoriak, hodeiek noiz ekarriko duten euria eta eguz-

JOSE DIAZ NATURAREN MAITALEA

Teknologiari, argindarrari eta ur beroari uko egin eta 100 egun txabola batean eman ditu, Asturiasen. Natura bidelagun, dokumental batean bildu du bizipena.

Oihane Larretxea de la Granja



kia noiz aterako den behe-lainoaren artetik... Maite du, bizi-ki maite, paradisu hori.

Duela hamabost bat urtez geroztik txabola bat du bertan. Mundu ero honetatik ihes egiteko leku aproposagorik ez da egongo. Zaila parekorik topatzea. Eta erronka jarri zion bere buruari: txabola horretan 100 egun igarotzeko gai izango ote zen, isolaturik; alegia, beste gizakiekin harremanik izan gabe, soilik natura eta bera. Ez argirik, ez ur berorik, ezta mugikorrik ere –azken hori erraza zitzaion, ez baitauka–. Soilik bideo kamera batzuk eta drone bat esperientzia filmatzeko. Bada, esperientzia hori biltzen duen “100 días de soledad” dokumentala iragan ostiraletan estreinatuta zen zinema aretoetan, iaz Jackson Hole natura zinemaldian finalera heldu ondoren, Wanda Films ekoiztetxearen eskutik.

Dokumentalak natura bere handitasun osoan erakusten du eta, neurri batean, gizakia- ren txikitetasuna agerian utzi. «Filmaketa garaia ez zen kasualitatez aukeratu: irailetik abendura. Natura oso eskuza- bala da uda amaieratik negua- ren hasierara bitartean; zuhai- tzak, paisaia egunero aldatzen dira, kolore batzuk erantzi eta beste batzuk jantziz».

Natura bera erabili du haus- narketa egiteko. «Ez naiz nor inori hausnarketak eskatzeko, baina balio izan badu gure bi- zimoduaren inguruan apur batez pentsatzeko, ase naiz. Sa- kelakoekin, adibidez, oso kriti- koa naiz, batik bat egiten den erabileraz. Behin entzun nuen, eta hala da: urrun daudenak gerturatzen dizkizu, baina ger- tu daudenak urrutiratzen diz- kizu. Etxe berean egon daitez- ke hiruzpalau telefono, eta bakoitza bere kasa aritzea».

Bakartasunaz ere hausnar- tzen da, ezinbestean. Eta, zen- tzu batean, Diaz ez zen baka- rrik egon. Gizakirik gabe egon zen, hori izango litzateke zuzen- nagoa. «Ez nintzen bakarrik egon. Jendearekin ez egotea, suposatzen da hori dela bakar- dadea, baina ez nuen halako- rik sentitu. Animaliak daude, natura bera bidelagun da, hai- zeak espazioa betetzen du... Edozein hiritan bai, bertan bai izan dut bakardade sentimen- dua. Duela egun batzuk Madri- len izan nintzen, eta Gran Via gurutzatzen bakarrik sentitu nintzen. Jendetzaren artean oharkabean pasatzea da nire- tzat bakardadea, ez konpainia eza. Errealitate paraleloak bizi ditugu, oso indibidualizatuak. Beldurtuta nauka horrek».

EZINBESTEKOA DENA BAINO EZ

100 egun. Hiru hilabete pasa- txo. Hori zen markatu zuen epea. Txabola erabat ustu zuen eta «bakar-bakarrik era- bat ezinbestekoa» zena utzi. Laban bat, sardexka eta koila- ra. Eltzea eta bizpahiru tresna. Buruan jartzeko linterna txiki bat, arropa aproposa, mendiko bota pare bat eta manta batzuk. Sua egiteko egurra aizko- raz moztu zuen. Hala egin be- har zuen derrigor txabola bero mantendu nahi bazuen. «Ho- gei liburu eraman nituen, ira- kurtzen denbora mordoa emango nuela uste nuelako, alegia, lagunduko zidala litera- turak. Ez nuen bakarra ireki!», aitortu dio GAUR8ri.

Elikatzeko leka zaku bat bai- no ez zuen eraman, eta protei- nadun lata pare bat. Egonaldia hasi aurretik baratze bat pres- tatu zuen txabolaren alboan: patatak, aza eta beste barazki batzuei esker elikatu zen. Oilo- ak ere erosi zituen, eta oilate- gia eraiki zuen. «Basoak eman


zidan gainontzekoa: intxaurrak, urrak, sagarrak, gaztainak... Natura oso eskuzabala da, eta denborak aurrera egiten zuen neurrian orduan eta gutxiago behar nuen kanpoaldetik. Babarrunak prestatzen nituenean, potoetan gorde eta errekan gordetzen nituen; hori zen hozkailua. Egun batzuek gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko babarrunak baino ez nituen jaten». Ingurugiroan ia inpakturik ez duen bizimodua: 100 egunen ondoren, zabor poltsa txiki bat baino ez zuen sortu...

Etxera bueltatu zenean «garbiketa» egin zuela aitortu du. Txabolak 25 metro koadroko azalera du, familiarekin bizidena etxeak 250ekoa... «Konturatzaren zara espazio gehienak ez dituzula erabili ere egiten. Eta espazio horietan badaudela altzariak erabiltzen ez dituzun gauzez zeharo beteak... Lagun batek eman zidan aholku bikaina jarraitzen dut: erabiltzen ez duzun guztia sartu kaxetan, itxi eta ez idatzi kanpoan zer dagoen barruan, bai, ordea, data, eta bi urte pasatakoan ireki ez duzun kaxa bakoitza eman, oparitu. Bi urtetan erabili ez dena, faltan bota ez dena, ez da garrantzitsua».

FALTAN BOTA? EZERTXO ERE EZ

Esperientzia jaso ahal izateko baliatu zuen teknologia bakarra izan ziren bost kamera eta drone bat. 400 ordu ditu grabatuta. Emaizta 93 minutuko dokumentala izanik, ulertzekoa da zein zaila izan den zer sartu eta zer kanpoan utzi erabakitzea.

Grabatzen zuen guztia entregatu egiten zuen, astelehenero, hiru semeetako batekin hitzartutako puntuan. Baina ez zuten inoiz topo egiten. Batek materiala uzten zuen leku ba-



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | FOKU - WANDA FILMS

tean, besteak disko gogor berriak jaso, hutsik, edukiz betetzeko. Hain zuzen ere, familiaz banatzea izan zen zailena, gainontzean onartu du ez zuela inor ezta ezer ere faltan bota. «Egunero zortzi eta hamar ordu arteko txangoak egiten nituen, ikusten nuena grabatuz, inguruaz gozatuz, hausnartuz... Idatzi ere asko idatzi nuen. Oilategia atondu eta garbitu, Atilla zaldiari jaten eman, jasotako irudiak erreparatu merezi zu-

ten edo ez egiaztatzeko...». Harrigarria dirudi, baina ondorengo baieztapen hau egiten du, zalantza izpirik gabe: «Gauza asko soberan izan ditut, baina, ez, ordea, denbora». Nola bait, mezu bat helarazi nahi du. «Erakutsi nahi dut beste modu batera bizitzea posible dela, modu arinagoan, gauza gutxiagorekin, eta zoriontsu izaten jarraitu. Eta jakin bizitzaren erritmoa norberak markatu dezakeela eta ez alderan-



edo teknologia berriak neurrian erabiltzearen joera. Akaso ohartu gara, Diazek dioen moduan, erritmo basatiaz. «Ez dago kontrolik. Mugikorrekin kritiko naiz: begietara begiratuz mantentzen diren solasaldiak maite ditut. Nire anaia Tino hil zenean, erabaki nuen kaltegarria zen eta saihestu nezakeen ezer ez egitea. Ikusi nuen nola egin zuen borroka nire anaiak bizirik mantentzeko, eta, hala ere, azkenean, joan egin zitzaigun. Horrek pentsarazi egin zidan. Neu ere beste edonor bezala joan egingo naiz mundu honetatik, baina bizirik nagoen bitartean bidea bera ederra izatea nahi dut. Ezarritako biderik ez dut nahi».

ESPERIENTZIAREN IRAKASPENAK

Barrualdean biraka zituen burutazio asko Diazek kamerarekin konpartitu zituen, ozen: hausnarketak, bakarrizketak, txantxak... Beste aldean inor balego bezala berriketan aritzen zen batzuetan; horregatik, dokumentalak ikuslearen konplizitatea lortzen du eta irri bat edo beste ere lapurtuko dio zineman. Tino anaiarekin ere asko «hitz egin» zuen. «Esperientziari esker errazago komunikatu zara zure anaiarekin?», jakin nahi dugu. «Bizitzan, egoera batzuetan, zaila suertatzen da barruan duzuna kanpora ateratzea. Gauza bat duzu eskuartean, gero beste bat, lanak, betebeharrak... Kasu honetan, ia hilabete igarota zenean, nire barrenean jariora gertatzen hasi zen, ni neu nire buruarekin ere harrিতuta gelditu nintzen. Ez naiz idazten trebea, baina egunerokoa idatzi nuen. Gerora irakurri dut eta ez naiz bertan errekonozitzen, zerbait jaio zen han, zerbait sortu zen nire barrenean».

«Ezinbestekoa baino ez zena nuen txabolan, eta, hala ere, gauza asko sobratu zaizkit. Denbora, ordea, faltan sumatu dut, oso lanpetuta ibili naiz»

tziz, maiz bizitzaren eguneroak garamatzalako gu. Lana astelehenero ostiralera egin; %90ean gustuko ez duzuna egiteko, gainera. Larunbatean neke-neke eginda eta igandean urduri astelehena datorrelako. 100 egunak amaitu eta hirira jaitsi nintzenez, adi-adi begiratzen nituen kaleak eta jendea, eta aurpegi itzaliak ikusten nituen. Begirada galduak».

Pixkanaka hedatzen ari da sare sozialak alde batera utzi

«Zerbait ikasi al duzu zure buruaz?». Beste kuriositate bat sortu zaigu. «Ez nintzen inoiz hamar egunetik gora egona naturan, bakarrik, jendartetik aldentuta, beraz, ezbairik gabe, erronka handia zen. Harritu baino gehiago, nire iritzietan eta pentsaeretan berretsi naiz», nabarmendu du. Lehenengo hilabetetik aurrera bere buruan lehenago ikusten ez zituen inperfekzioak ikusten hasi zen Diaz. «Hobetzeko gauzak dituzula ohartzen zara, baina, aldi berean, egin dituzun gauza onak baloratzen dituzu...».

Ez zuen beldurrik pasa, nahiz eta onartu egoera ez hain samurrak ere bizi izan zituela. Elurra, hotza, euria eten-gabe, haize bortitza, iluntasuna arratsaldeko seietan... baina eguzkia ere ikusi zuen, zilak koloreko behe lainoa, udazkenak erabiltzen dituen hamaika koloreak, okreak, berdeak, horiak, gorriak... abenduan zuri-tu zuen arte. Beldur bakarra ondo ez filmatzea zen. «Nahikoa kalitate zuten irudiak hartzeko gai izango ote nintzen, horixe nuen kezka. 100 egunak bakardadean beteko nituela banekien, baina ondo dokumentatu nezakeen?». Emaitzak erantzuten du galdera. Pablo Diaz semeak jarri dio soinu banda dokumentalari, bereziki lan honetarako sortua, sentsibiltate handiz konposatu du musika. «Banekien oso egoera bereziak emango zizkidala naturak. Urteak dira argazkiak egiten ditudala mendian, basoetan, baina inoiz, sekula, irudi batek ez du errealtatea gainditu. Zoragarriak dira argazkiak, bai, baina gure begiekin ikusten duguna, zuzenean, beti da ederragoa. Eta bideoarekin nire esperientzia hutsaren hurrengoa zen».



Joera hori da gorroto duena. Ez du maite “gorroto” hitza, baina kasu honetan erabili egiten du, asmo osoz, aitortu duenez. «Gaur egun erabat gaixorik gaude guztia kamerarekin jaso beharrarekin. Eta akaso ez duzu ez irudi onik hartuko ez uneaz gozatuko. Bizi garen lekuan hondartza

ederra dugu. Jendea badator autoz, argazkiak egiten ditu eta alde egiten du, paisaia estimatu gabe. Eta guztia non zauden, edo zer egiten edo jaten ari zaren gainontzekoei erakustearren. Besteek ikusiko ez balute balioa izango ez balu bezala! Niretzat oso triste da hori».

Gelditzeko gonbita da “100 días de soledad”. Erritmoa jaitsi, solastatu, begietara begiratu eta inporta duena apreziatu. Natura maitatu eta zaindu, berak bueltatuko digu behar dugun guztia... eta gehiago. Sentsibiltateari kantua da dokumentala, bizitzari berari. «Bihotzarekin egin dugu, mo-

du umilean, natura eta bizitzari buruzko mezua helarazteko. Ni neu dokumentala egiten hunkitu naiz; inor hunkitzen bada, horrekin konformatzen naiz». Diazek dio «oso zoriontsu» izan zela egiten ari zela, eta, gainera, ohartzen zela sentimendu hartaz. Ikusleak ere sentituko da halako zerbait.



«Oso kritikoa naiz sakelakoekin. Dena jaso nahi dugu argazkietan, uneaz gozatu gabe. Badirudi inori bidaltzen ez badiozu ez duzula bizi izan. Oso triste da»

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua





JUDIMENDIKO SUGAR BIZIA

Sugar Kultur Fest, behetik sortutako «txinparta», auzo batu eta bizia pizteko

 **KULTURA** / Xabier Izaga Gonzalez

Gasteizko Judimendi auzoak auzo sortzaile bihurtzeko apustua egin du azken hilabeteotan. Bide horretan, apirilera prestutzen ari den Sugar Kultur Fest, arte eta kultur jardueraz betetako astea, «lehen mugarría» izatea nahi dute bertako eragileek, «prozesu askoz zabalago eta sakonago baten lehen mugarría», alegia.

Ez zen, ez, ematen zuena. Astelehen goizean kazetariei eskaini zieten kafean baino ez zen azukrearen erreferentziarik agertu. Izan ere, Judimendin, ezin bestela izan, su-

gar festa auzoaren izaera «landu eta ezaugarritzen» duen sugarrari dagokio. Bertako hainbat eragilek Judimendi sormen auzo bihurtzeko apustua egin dute, eta, hartarako, Gasteizko auzo horren sua kitzikatzeko, astebetetz arte eta kultur gun

Antolatzaileak ARTgia sorgune & aretoko sarreran, Sugar Kultur Fest egitasmoa aurkeztu aurretik. GAUR8

bihurtzea erabaki dute Sugar Kultur Fest antolatuta. Horren berri emateko, prentsa gosaria prestatu zuten ARTgia sorgune & aretoan.

Judimendi Gasteizko auzo zaharra da, zaharra baina berritzeko gaitasuna duena. Horren erakusgarri, astelehenean aurkeztu zuten egitasmoa. Eki-menaren bozeramaile eta auzoko grafitilari Asier Balzak, Angel Madina Auzo Elkarteko kideak eta Edurne M. Aiona Arabako idazle independenteen taldeko ordezkariak azaldu zituzten herri kudeaketatik sortutako «komunitate-esperientzia berritzailearen» nondik norakoak.

Duela urte bi Auzo Elkartean hasi zen suspertze prozesuaren baitan, auzotarren iritziak jasotzen hasi ziren, eta auzo bizia eta batua izateko, kultura elementu aproposa dela pentsatu zuten, baina kultura kudeatzeko eredu berri baten aldeko apustua eginda. Auzoak San Joan jaiak antolatzeko duen konpromisoa ikusi eta harago joan beharra sumatuta,

Apirilaren 15ean –Artearen Nazioarteko Egunean– hasi eta 22ra bitartean kultur jarduera ugari izango dira Judimendin, auzoko zortzi gunetan

gizarte bultzada sorkuntzara bideratzeari ekin zioten. Joan den urrian, parte hartze zuzenaren bidez eta auzotarren berrezko baliabideetan oinarrituta, «Judimendik behar duen birgaitze eta suspertze prozesuan aurrera egiteko tresna» sortzea erabaki zuten. Asmo horretan, Sugar Lab elkargunea sortzea izan zen lehen urratsa, eta elkargune horretatik sortu zen bigarren urratsa: Sugar Kultur Fest.

ASTEBETEKO EGITARAUA

Apirilaren 15ean –Artearen Nazioarteko Egunean– hasi eta 22ra bitartean kultur jarduera ugari izango dira Judimendin, auzoko zortzi gunetan: Pepe Ubis plazan, Errekatzik, Auzo Elkartearen lokaletan, Gizarte Etxean eta Kiroldegian, besteak beste. Angel Madina Auzo Elkartearen kideak GAUR8ri esan zionez, harriztatuta geratu dira

Kulturatik eta artetik piztu nahi dute Judimendi, eta egitasmo hau sugarra sortzen duen txinparta dela diote. Helburua sinergiak sortzea da, elkarri babesa emanez

egitasmoak jaso duen erantzuna ikusita. Dioenez, apirileko aste horrek ikusaraziko die egitasmoa iraunkortzeko aukera duten, baina dagoeneko badute baikor izateko motiborik. 30 eragile inguruk parte hartuko dute edizio bakarrean geratzea nahi ez luketen kultur jaialdi honetan: Auzo Elkarte, Gizarte Etxea, auzoko eliza, Sumendi espazio autogestionatuko kideak, Eoncult elkarte, AEK eskualtegia, auzoko hainbat artista, ARTgia sorgune & aretoa eta beste askok.

Jarduerei dagokienez, 50tik gora proposamen jaso dituzte, arte eta kultur adierazpen

bihurtuko direnak: hitzaldiak, musika estilo desberdinetako kontzertuak, abesbatzak, antzerki emanaldiak, elizak antolatutako “Jesukristo Superstar” obraren antzezpena, muralak, literatura tailerrak...

Esan bezala, hasiera baino ez izatea nahi lukete, horregatik gune horiek dinamizatu eta sorkuntza eremu iraunkorak izateko apustua egin dute, «Judimendin gertatu beharreko prozesu askoz sakon eta zabalago baten lehen mugarrira» izan dadin. Halaber, egitarauan auzo izaera nabarmentzea nahi dute, «eraldaketak ikusarazteko asmoz, batetik, eta hurbileko ekonomiak sustatzeko gai garelako erakusteko, bestetik». Kulturatik eta artetik piztu nahi dute Judimendi, eta egitasmo hau sugarra sortzen duen txinparta dela diote. Helburua sinergiak sortzea da, elkarri babesa emanez eta

ezagutzak trukatu, «giza ezagutza ez baitago atal bakartutako banatzerik», eta lore arteko polinizazioa bezala «eremu anitzen arteko elkarreragina ezinbestekoa baita zientzia, arte eta kulturarako».

EGITARAU IREKIA

Sugar Kultur Fest Judimendiko ekimena da, baina irekia; horregatik, nahi duenari parte hartzeko gonbita egin diote. Izan ere, egitasmoaren aurkezleetako bat, Edurne M. Aiona, ez da auzokoa, baina haurrentzako literatura tailerretan parte hartuko du, haurrak «idazkera sortzailean» trebatzeko asmoz.

50etik gora arte eta kultur hitzordu prest daude dagoeneko, baina oraindik proposamenak jasotzen jarraitzen dute. Egitasmoaren kudeatzaileekin harremanetan jarri nahi duenak labo@sugarfest.eus helbidera jo dezake.

% 0,25! Helduak gazte!

Eta gazteak heldu. Heldu beharko diete bai, gazteek ere. Jubilatutako kalea hartu dute pentsio duinak aldarrikatzeko, eta lortu arte ez omen dute lagako. Min jasanezina diete eragin Gobernuaren etengabeko irainek eta zutitu, ukabilak estutu eta berriro kaleak hartu egin dituzte 68ko gazteak bailiran.

Gobernuak dio ez dagoela dirurik 1.080 euroko pentsio minimoa bermatzeko, baina bai proiektu erraldoi antzuak eta aparailu militarrek erosten xahutzeko. Zauriari gatz, PPK baitio beren dirua tentuz behar dutela gastatu jubilatuek, ardu-

radun politikoen kirol nazionala diru publikoa atzaparkadaka lapurtzea denean. Raxoik dio pentsio sistema publikoa ez dela bideragarria, langileen soldatetatik metatutako 70.000 milioi euroko pentsioen poltsa azken bost urteotan beren nahierako proiektuetara desbideratuta hustu dutenean. Irainak eta mespretxua langileriaren borroka gogorrenetan protagonistak izan zirenei. Agintari burubako alenak! Antza ez dute konturatu nahi pentsioak ez direla soilik adinduen arazo, heldutasun duina izan nahi dugunona baino, guztiona alegia, sigla, bandera eta kolore guztien gainetik. Nago gizartearen

egiturazko arazo larrienetakoa dela hau, eta pentsio duinak bermatuko dituen sistema publikoarekin asmatzea erraza ez bada ere, ziur naiz laster jendarte osoa baturako garelako kaleetan eta inoizko protestaldi jendetsuenak ikusiko ditugula.

Ikusteke dago Raxoik zenbat denbora iraungo duen “ezer-egin-gabe” ohiko taktikarekin, protestak milakotik milioietako unitatean zenbatzera pasatzen diren bitartean.

Ongi erratua zegoen jubilatutako gizartearen ingurune pasiboan kokatu zituena, aktibo daude eta oso haserre, eta laster agintzen hasiko dira. •

Xabier Mikel Errekondo

infraganti CLARA PEYA

Pianista kataluniarra (Palafrugell, 1986) «Oceanes» diskoa aurkezten izan berri da gurean. «Goazen zain dauden printzesak izateari utzi eta ekintzaile izatera», animatzen ditu emakumeak rap doinuarekin. Les Impuxibles performance konpainiarekin ere bira betean dabil, transexualitatea eta sexu indarkeria lantzen duten ikuskizun banarekin.



Clara Peya, martxoaren 11n Andoaingo Basteron eman zuen kontzertuan. | Jon URBE | FOKU

Ez zen jende aunitz bildu, baina *superguay* egon zen». Hala laburbildu ditu Clara Peyak Euskal Herrian emandako kontzertuak. Ermua, Berriz eta Andoainen jo zuen pianistak, duela bi aste. Bi lagun izan zituen oholtzan, Sandra Sangiao (ahotsa) eta Vic Moliner (life elektronikoa eta slide gitarra). Bidaia bat proposatu zioten entzuleari, espazio musikalen bidez, une libreagoen bidez abestiak elkar lotuz. «Zuzenekoak hagitz indartsua da,

bakoitza desberdina da, eta hori ederra da», adierazi digu. «Oceanes» (2017) azken diskoa aurkeztu zuten, ozeaniden ideiatik jaiotakoa. Greziar mitologian ninfak ziren ozeanidak, itsaso, ibai, laku eta iturrien izenak zituztenak. Ozeano eta Tetisen alabak. «Gogoko nuen, itsasoa agertzen zelako eta itsasoa sakontasuna, handitasuna, indarra... dena delako niretzat. Bada esera bat hala dioena: 'itsasoa gizakia pasatuko den frogatik da'». Itsaso aunitz egon da bere bizitzan. Nabigatu eta guzti egiten du.

Elementu hori erabiliz, «erabat feminista» denez, emakumea ikusgarri egin nahi izan du. «Ozeanak nire bizitzako emakumeak dira. Abesti bat egin nuen markatu nauen emakume bakoitzarentzat: ama, ahizpa, lagunak, maitaleak... Eurengan islatu nahi izan dut neure burua, aunitz ikasit dut beraiengandik».

Diskoari izena ematen dion abestia, «Oceanes», emakumearen botereari eskainitako kantua da. «Mundua printzesa menderaezinen plaga izan dila», hori du leloa. Ariadna Peya ahizpa koreografoarekin egindako bideoklipa indartsua da. Martxoaren 8an greba egin zuen, eta manifestazioaren amaieran abesti horren rapa egitera gonbidatu zituzten.

Ekainaren 1ean amaituko dute «Oceanes»-en bira eta disko berria grabatuko dute. Bertan gehiago animatuko da kantatzera (orain kantu bakarrean abesten du).

SEGITUAN INIZIATIBA HANDIA

Hagitz txikitik hasi zen pianoarekin, amatxi eta izeba pianistak zirelako. Klasikoa ikasi zuen, Suzuki metodoarekin. Honekin jotzen ikasten duzu baina ez dakizu irakurtzen. «15 urterekin aukera eman zidaten goi mailan ikasteko. Ez nuen argi, baina goi mailara joatea eskolan astean bi egun


huts egitea zenez, baietz erran nuen, jakina baietz», oroitu du irriz. Ikasketa horiek bukatu eta modernoarekin hasi zen, bere gauzak konposatu ahal izateko. «Segituan izan nuen inizatiba handia eta gauza ugari egiten hasi nintzen, erakusten, hanka sartzen...».

Artista ugarirekin kolaboratu zuen, berea egitea erabaki zuen arte. «Nire konpainia eta nire diskoak». Dezentetan egiten dizkiote enkarguak dantza, antzerki edo zirku konpainiek beren ikuskizunetarako musika egiteko, baina berea egitea gustatzen zaio. «Batzetan garenaz lotsatzen gara. Denborarekin kontsekuentetagoa naiz. Hau naiz eta hori gustatzen zait, eta ez da deus gertatzen. Fidelagoa, zintzoagoa naiz nire buruarekin, egiazkoagoa, eta hobeki doazkit gauzak. Ez dakit hobeki doazkidan ala hobeki doazkidala uste dudana, baina kontentua go nago».

Gauza hagitz ezberdinak egiten ditu eta gustatzen zaizkio. Arte guztia gustatzen zaio. «Musika ere dena gustatzen zait izan behar duena bada. Hori da konplikatu. Nik ez dut beti lortzen, ezta gutxiago ere. Koherentea izatea, egiatan erratea gauzak. Niri behintzat hori gustatzen zait artetik. Umiltasuna eta sinesten duzunean dena ematea».

«Denborarekin kontsekuentetagoa naiz. Hau naiz eta hori gustatzen zait, eta ez da deus gertatzen. Zintzoagoa naiz nire buruarekin, egiazkoagoa, eta hobeki doazkit gauzak»

«AÜC» ikuskizunarekin ere badabilta. Sexu indarkeriaz mintzatzen da. «Indarkeria txikiez solastatzen da, ez bortxaketaz soilik. Kaletik doan bortxatzailearen mitoa puskatzen du»



«Oceanes» diskoaren aurkezpen biraren barrenean, Euskal Herrian izan zen pianista. Andoainez aparte, Ermuan eta Berrizen ere jo zuen. Jon URBE | FOKU

Emakume izateak eragin handia duela dio. «Nire kasuan onerako izan dela uste dut, nire gauzak egitera animatu bainaiz. Besteengandik legitimatua sentitzen ez nintzenez, jendeak nirekin jotzeko interesik ez zuenez, nire buruaren nagusi izan eta nire gauzak egitea erabaki nuen. Egin dudak gauzarik onenetakoa izan da, hobeki sentitu naiz eta hori hagitz garrantzitsua da. Nire bidea ere aurkitu dut. Eta hori, kontxo, ez da erraza».

Zazpi disko ditu. Libreago noiz sentitzen hasi zen galde-tuta, hala erantzun digu: «Harreman bat izan nuen eta utzi egin ninduen. Orduan, egun osoan maitasun kantak egiteko behar bizia sentitzen hasi nintzen. Hala egin nuen 'Tot aquest silenci' diskoa. Berari

iritsi zitzaion. Itzuli ginen, ia urtebete ikusi gabe egon eta gero -irriz-, eta orduan 'Tot aquest soroll' egin nuen, guztiz kontrakoa. Isiltasun guztia eta zarata guztia».

Beti idatzi izan du maitasunaz. «Nire motorra izan da, eta honen harira konturatu nintzen zein engantxatuta gauden maitasun erromantikora. Maiatzean grabatu eta urrian Apolon estreinatuko dugun disko berriak, 'Estómac' izenekoak, maitasun erromantikoaz hitz egiten du. Azaltzen du patriarkatuak zenbat eragin duen emakumea gizonari begira egotean, bere zain... Maitasun erromantikoa gure erdigunean jarri du, beste gauza batzuk jarri beharrean. Honek guztiak aldatu egin behar du. Nik oraintxe aldatu ezin dudanez, aldatu ezin dudala espli-

katzen dut. Eta hori jada aldatzeko modu bat da».

Les Impuxibles ahizparekin batera sortutako performance konpainiarekin ere badabil. Sei ikuskizun egin dituzte jada. Lengoaien nahasketa eta abstrakzioa erabiltzen dituzte salatze eta eurentzat inportanteak diren gaiak plazaratzeko. Mito faltsuak ezabatzeko eta errealtate eta eredu berriak sortzeko ere bai. Orain "Limbo"-ren bira bukatuko dute. Transexualitateaz da. "AÜC" ikuskizunarekin ere badabil-tza. Sexu indarkeriaz mintzaten da. «Indarkeria txikiez solastatzen da, ez bortxaketaz soilik. Kaletik doan bortxatzailearen mitoa puskatzen du». Heldu den urteko martxoan buru osasunari buruzko ikuskizuna plazaratuko dute. Gaur-gaurko gaia hori ere.

Jotzen duenean bere burua ez epaitzen saiatzen da. «Bestela behar denaren arabera jotzen duzu. Ez dago ongi egituratua sormenaren sustapena. Bitxia da sarri inprobisazioa ikasten ari zarela, tresnak eman orde, mugak jartzen dizkizutela». Peyak dena buruz jotzen du, partiturarik gabe. Bere musika erraza da aditzen, baina zaila jotzen. Sinplea dirudi baina ñabarduraz beteta dago. «Obsesionatuta nago soinuarekin eta dinamika asko eskatzen dut. Dinamikak etengabeko zaintza eta entzutea eskatzen ditu. Egiten ari zarenarekin konektatuta egon behar duzu eta besteek egiten dutena hagitz ongi aditu. Hori ez da batere erraza musikan», aitortu du. •

Maidar Iantzi Goienetxe



Garazi Goia - @GaraziGoia

Idazlea

Ur lasterraren aurka

Trafikoaren aurkako norabidean, atsegina da goizero bulegorako bidaia. Hogei minutu irratian albistegia entzuten ematen ditut, hiriko aldirira, Londres erdira sartzeko zain dauden auto ilaren albotik. Azken egunetan bi albistek dominatu dituzte goiburuak.

Brexita da horietako bat. Nola ez. Londresen burbuila baten barruan jarraitzen genuen (edo dugu oraindik). Westminsterreko debateei entzungor eginez, gobernuko lidergo ahula kuestionatuz; eta dena bertan behera utziko dutela eta beste galdeketa bat egingo dutela itxaropenez. Europar Batasunetik alde egiteko erabakiak egunerokotasunean apenas izan duen eraginik eta albistegiak ekidinez gero, ezer ez zela gertatzen pentsatuko luke edonork. Baina, oker geunden. Benetako Brexita 2020. urteko abenduaren 31n eman-go dela hitzartu dute aste honetan eta horrela argitaratu zuten astelehenean. "Benetako" Brexita da, Theresa May lehen ministroak eskatutako trantsizioaren ostean. Aipatu berri dudana ahultasun politiko hori inoiz baino gehiago nabarmendu da onartu dituzten baldintza orokorretan. Berriro ere, hainbat puntutan amore eman behar izan dute Europatik zetorren erresistentziaren aurka. Denborak presioa jartzen duenean, hori gertatzen da. Ez dago irtenbiderik.

Gobernuko debatea beste gai baten inguruan zentratu da gaur. Datuen erabilera, pribatutasuna eta Facebook. Izan ere, datuen kudeaketan eta analisisian dabilen Londresko enpresa bat, Cambridge Analytica, zen irratsaioko beste albiste nagusia. Trumpen presidentetzarako kanpaina erabili ziren materialak sortzeko datuen erabilera desegokia egitea leporatzen zaio enpresa horri. Agidanez, 50 milioi Facebookeko erabiltzaileen datuak lortu zituen eta erabiltzaileen onespenerik gabe edo datuen pribatutasun legeak errespetatu gabe, azterketa lan bat egin zuen. Enpresa berak baita ere, Brexitaren aldeko bozka manipulatzeko prozesuetan zerikusia izan zuela espekulatzen da.

Gertatukoaren bertsio ezberdinak azaldu dira orain. Gaur goizeko irratsaioan elkarrizketatu dute Cambridge Unibertsitateko irakasle Aleksandr Kogan. 50 milioi erabiltzaileen datuak oinarritzat hartuta pertsonalitate aplikazio bat sortu zuen. Bertan 270.000 pertsonak inkesta batean parte hartu zuten eta Cambridge Analytikak ordaindu egin zien partaidetza horren truke. Eta inkesta horretako emaitzak

erabili ziren Trumpen aldeko kanpaina. Koganen hitzetan, berari inork ez zion esan zertarako erabiliko ziren bere lanaren emaitzak, ezta aipatuko enpresak eskatutako lana legez kanpoko zenik ere. Arrazoi osoz, bere postura babesteko erabilitako jarrera hori ez-etikoa edo ezmorala dela esaten zion irratiko esatariak.

Bestalde, Facebooken defentsa honokoa: 2015ean jakin omen zuen erabiltzaileen datuak Cambridge Analyticaren esku zeudela, eta azalpenak eskatu zizkion hari. Adierazi dutenez, datu guztiak ezabatu zituela baieztatu zien Cambridge Analyticak.

Erresuma Batuko Gobernuak Mark Zuckerberg Facebook sare sozialaren sortzaileari gertatutakoa Parlamentuan azaltzea eskatu dio.

Batzuetan pentsatzen dut datuen borroka hori aspaldi galdu genuela. Beranduegi da (Brexitarekin gertatu zaigun bezala). Datu adierazgarri bat: irudikatu bi enpresaren eskuetan, biren eskuetan bakarrik, gure bizitzetako zenbat informazio dagoen gordeta. Facebookek Whatsapp eta Instagramen jabetza dauka; Googlek Youtuberena. Ez dago ezer gehiago esan beharrik. Erabilera egokiaren eta desegokiaren arteko mugak jartzeko beranduegi izan daiteke.

Trafikoaren aurkako norabidean jarraitzen dut. Errealitatearen aurka. Ur lasterraren aurka. Eta datuen olatuek ito egin gaituzte. •



BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



ZINKUNEGI FAMILIA FUNTSA

ELBIRA ZIPITRIA HAURREKIN, ANDONI ZINKUNEGIREN BEGIAN

Andoni Zinkunegi argazkilaria 1920an jaio zen Errenterian. 1936an, tropa frankistak Gipuzkoara sartu zirenean, Ipar Euskal Herrira joan zen bere familiarekin batera. Naziek Estatu frantsesa okupatu zutenetik erresistentziarekin kolaboratu zuen, Ipar Euskal Herrian eta Parisen. 1948an erbestetik itzuli zen bere familiarekin eta Donostiara bizitzera joan zen. Han argazki-denda bat zabaldu zuen, eta batez ere gizarte erreportajeak egiten zituen. Denda 1960ean itxi zuen, baina argazkilaria lanean jarraitu zuen. Bere irudiak frankismo garaian ezkutuan argitaratzen zituzten hainbat aldizkaritan plazaratu zituen, 50eko eta 60ko hamarkadetan. Segurtasun motiboak zirela-eta, bere lanak sinadurarik gabe agertzen ziren beti; hala ere, askotan atxilotu zuten, eta zenbait hilabete eman zituen Martuteneko eta Carabanchelgo kartzeletan. Irudi haietan ikurrinak, pintadak eta elkarretaratzeak ikusten ziren. Zinkunegirenak dira, halaber, 50ko hamarkadako Donostiako lehen ikastola klandestinoen argazkiak. Artikulua ilustratzen duen irudia 1954an egin zuen Zinkunegik. Elbira Zipitria ageri da, bere zenbait ikasleekin, Donostian. Zipitriaren ikasle izandakoek gaur egun kontaktatu dituzte, batzuetan ez zuten libururik ere eramaten ikastolara, Polizia Zipitriaren etxea zelatatzen ari zela-eta. Beste batzuetan, berriz, Poliziak etxeko txirrina jotzen zuenean, logeletako oheen azpian gordetzen ziren. Gaur egun 1994an hildako argazkilaria artxiboa haren familiak dauka.

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

APIRILAREN 6AN ZURE KIOSKOAN SALGAI



ULURU Errespetua sor

Austrialiako erdiguneko basamortuan dago mendi perfektu hau, aborigenentzat sakratua dena. Urtero ehunka turistak eskalatu nahi dute, baina 2019tik aurrera debekatuta izango dute.

Eta gainera: Petra eta Itsaso Hilaren ekialdeko ertzean • Gorobel mendikateko hesi ikusgarria
• Trekking erraza Nepalen • Trinidad, gozamina • Europako zortzi atrakzio xeble...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



9